

arte & kultura
fito rodriguez

historia
fournier 140

GEU

2,40 €

2008ko abendua **190**

musika
lauroba

euskara
durangoko azoka 08



sorginak

akelarreak & inkisizioa



A person is shown from the chest up, wearing a dark-colored t-shirt. The t-shirt features the word "COUPRES?" in large, bold, white capital letters. Below this, in smaller white text, it says "A L'ÉCOLE DE LA COMMUNICATION" and "ÉCOLE DE LA COMMUNICATION". The person is standing in a dark, industrial or urban environment at night. In the background, there are blurred lights and structures, including a bright blue and white light source on the left. The overall atmosphere is gritty and urban.

[illegible]

Luna KREA

WWW.KREARED.COM

KREA

EXPRESIÓN CONTEMPORÁNEA

Caja Vital  **Vital Kutxa**

INFO@KREARED.COM

TEL / FAX +34 945 150 147

KREA. POSTAS 17, 01004 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ensueños loinaz

madre vedruna 18

vitoria-gasteiz 945 13 38 38

zorionak eta

ondo lo egin!



Arabar sentitzeak ematen digun pozak garamatza gorenera.

NORTASUN KONTUA DA

Diario

Noticias de Álava

Eres lo que lees

www.noticiasdealava.com

geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

sumarioa 190

euskara&historia

sorginak, akelarreak eta inkisizioa9-13

geupertsonaia

fito (arturo) rodriguez. hari gorriak15-19

arte txokoa

lauroba taldea26-27

batbitan

durangoko azoka28-29

geugaia

heraclio fournier, 14030-34

beste:

iritzia: araba eta euskara5

gaztezulo20

literatura dosi txikitan25

geusex36

agenda, kaletik, idazleen zutabea,
euskaltasunean, proposamenak,
araba bixotzian, historia zutabea,
errezeta eta umorea



GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariko taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariko batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune veleaz de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune veleaz de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga, narioa cuesta eta ane pedruzo | azaleko argazkia: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea & araba bixotzian: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: rikardo arregi, imanolo garcia, mikel ayerbe, erlantz urtasun, maider garcia de bikuña (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesanak-mendizorrotzako ostalaritza eskola) eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



ARABA ETA EUSKARA

imanol garcia uriarte

Iruña-Veleia aztarnategiko aurrikuntzen ustezko iruzurra dela eta, Araba eta euskararen arteko harremanaren gaineko hainbat iritzi irakurri eta entzun ditut azken egunotan. Hobeto esanda, Araba eta euskararen arteko erlaziorik ezaren gaineko hainbat iritzi irakurri eta entzun ditut. Zenbait kasutan halako baieztapenak fede onez egiten direla onartzeko prest nago, baina kasu gehienetan argi dago atzean dagoen politikeria zein fede txarra. Argi dago ikuspuntu guztietatik Veleiako kulebroia erabat negatiboa dela, baina orain amorrazio gehien ematen didana da ikustea zelan batzuk baliatzen diren gertatutakoaz arabar guztion hizkuntzaren kontra aritzeko. Zelan da posible oraindik ere Arabako euskalduntasuna zalantzan ipintzea? Zer egin behar da zenbaitek uler dezaten euskararik gabe ezin dela Araba ulertu? Zer irakatsi edota irakasten da ikastegietan zenbaitek euskararekiko inolako atxikimendurik ez edukitzeko? Batzuetan, Araban euskara inoiz berba egin den ere kolokan ipintzen da!!

Nire ustez, hau biziki larria da. Araba eta euskara guztiz lotuta daude, Euskal Herriko beste herrialde batzuk eta euskara lotuta dauden modu berean. Hauxe ez da iritzi bat, errealitate historiko eta kulturala da, eta errealitate hau ukatzen denean, Araba bera ere ukatu egiten da. Ez dut esaten gaztelania gure herrialdean arrotza denik, inondik inora, baina lotsagarria eta justifikaezina da euskararen kontrako aritze sistematikoa. Euskarak atzerakada inportantea izan zuen gure herrialdean XIX. mendean. Baita XX. mendean zehar ere. Aipatu atzerakada hainbat arrazoi ezberdinek eragindakoa izan zen, ez naiz aipatzen hasiko, baina ziurtatzen dizuet ez zela kasualitatez gertatu... Honen guztiaren ondorioetako bat, euskara arrotza delakoan, jende askoren hizkuntzarekiko atxikimendu falta da. Hau, neurri batean, ulertu daiteke, baina hortik Arabako euskararen beraren existentzia ukatzerainoko saltoa ulertezina da. Zorionez, badago Arabako euskararen gaineko bibliografia ugari: Arabako alderdi ezberdinetako euskaldunek idatzitako testuak edota barietate arabarrak jasotzen dituztenak (horra hor, Larreako Juan Perez de Lazarragaren eskuizkribuak, 2004an topatutakoak, Betolatzako Juan Perez de Betolazaren dotrina, Juan Bautista Gamiz sabandoarraren olerkiak, Zigoitian jasotako kondaira euskaldunak... batzuk aipatzeagatik), mendeetan zehar Arabako zonalde ezberdinetako euskaldunen (gehienbat euskaldun elebakarrak) gaineko informazioa ematen diguten testigantza zuzenak, toponimiaren gaineko lanak (Díaz de Gereñu, González Salazar...), leku ezberdinetako arabar hizkeren gaineko lanak (Aramaio, Oleta, Legutio, Zigoitia, Baranbio...). Hauek eta beste asko esku-eskura ditugu, ez dute kosk egiten, eta irakur daitezke. Honetaz aparte, Arabako euskara gaur egun ere bizirik dagoela jakin beharrean gaude. Betiko euskara Aramaion izateaz gain, Legutio aldean (Gasteiztik oso gertu) eta Zigoitiko zenbait baserritan ere gorde egin da. Gainera, eman berri diren euskararen gaineko azken datuen arabera, arabarren %25ak euskara ezagutzen du, eta erabilera ere gorantza doa.

Veleian gertatutakoa penagarria da, bai. Hala ere, Landazuri historialariari esker, Okako Iruñan ia XIX. mendera arte euskara berba egin zela esan dezakegu. Gainera, Araba gehienez bezala, toponimiak berak euskararen presentziaren gaineko informazioa ematen digu. Ez da bidezkoa zenbaitek Perez de Lazarragaren eskuizkribua bezalako dokumentu inportanteak baztertzea, eta aldi berean Veleiako ustezko iruzurra erabiltzea euskararen kontrako gorrotoa erakusteko. Horrela jokatzaz gero, beldur barik esan dezakegu Veleian ez zela inoiz latinez berba egin, latinez idatzitako idazkunak ere faltsuak baitira.

Ez du zentzurik gure euskara ukatzea, horrelako jokaerak ez dira ulergarriak. Baliteke hau guztia gure kulturaren ezagutza luzaroan debekatzearen ondorio izatea.

[euskal filologian lizentziatua / gasteiz]

zeregin euskaraz [abendua]



GEUREKIN MENDIRA

abenduak 14 igandea

OKETA (1031m)

GOIZEKO IRTEERA

lovaina plazatik / kotxez

ordua: 9:00

arduraduna: kike (945140158)

geurekinmendira@gmail.com

KULTUR ERROTA

abenduak 16 asteartea

BOB, NOR DA BOB?

JON URRAZAren eskutik

bakarizketa barregarrien espiritua mantentzen den antzezlan dakarkigu jon urraza aktore eta zuzendariak. jon zubiagarekin lanean, eztabaidak, bakarizketak, eta zuzenean jotako gitara elektrikoak tartekatu dituzte. umorea, antzerkia eta musika zuzenean

20:30 parral tabernan

IRAKURLE KLUBA

abenduak 18 ostegunarekin

MIKEL HERNANDEZ ABATUA, OHE BAT OZEANOAREN ERDIAN, EREIN 2001

urtarrilak 29 ostegunarekin

ANTONIO TABUCCHI, OKER TTIKI GARRANTZIGABEA, ALBERDANIA-ELKAR 2008

hikaateneoan, pintore kalea 13, 20:00

kontakua: iban.zaldua@ehu.es

www.geugasteiz.com

geuelkarte@grn.es / 945222153

OHEAN ANTZEZLANA

MASKARADA

abenduak 3 - EUSKARAZ BERTAN BEHERA

principal antzezlanak, geu elkarteak,

gauekoak, eta erakundeak

GEU elkartearen oharra:

abenduaren 3rako iragarrita zegoen OHEAN antzezlan bertan behera gelditu da aitor beltran aktorea gaixotu izanaren ondorioz. 'ohean' antzezlan ikusteko gonbidapenak eskuratu edo erreserbatuta badituzue, sarrera horiekin ATE JOKA obra ikustera joan zaitezke. barka eragozpenak eta espero dugu 'ate joka' zuen gustuko izatea.

OHEAN-EN ORDEZ >

ATE-JOKA ANTZEZLANA

• TXALO KONPAINIA

aktoreak : iker galartza, joseba usabiaga, sara cozar
gene sacks-en la extraña pareja komedia ospetsuan oinarrituta egokitzena eta itzulpena: ritxi lizartza
zuzendaria: begoña bilbao

DURANGOKO AZOKA

abenduak 5-8

www.durangokoazoka.com

BARRUNDIAN, EUSKARA

iraganetik etorkizunera

abenduak 5 larreen

• HITZALDIA: JOAN PEREZ LAZARRAGAKO LARREAKO IDAZLEA (GIDOR BILBAO), 19:30
• 'LUMA ETA EZPATA' ERTAROKO BERTSO-TRAMA (afalostean)

>afaria: 21:00. 20 euro (izena-emateko epea: abenduak 3. barrundiako udala 945317006)
>antolatza: arabako bertsozale elkarte eta barrundiako udala

www.bertsozale.com

EUSKARAZ BAI!

pauso bat haratago

KONTSEILUAREN 10. URTEURRENA

abenduak 13

BEC 18:30 doan

haurtzaindegi zerbitzua / ezinbestekoa sarrerak eskuratzea / materiala salgai

www.kontseilua.org



AISA IKASTAROAK

ETORKINEK EUSKARA IKASTEKO

IKASTAROAK

doan

izena-emateko epea: abenduak 15

www.vitoria-gasteiz.org

AMODIOZKO GUTUNEN XVII. LEHIAKETA

SMS BIDEZKO VII. MAITASUN

MEZUEN LEHIAKETA

gutunak aurkezteko epea: urtarilak 6

mezuak jasotzeko epea: urtarilak 1-15

antolatza: JARDUN elkarte

www.jardun.net

WIKI-HISTORIAK

ARTEAREN HISTORIA GENERO

IKUSPEGITIK BERRERAIZ

>WWW.WIKI-HISTORIAS.ORG

euskal artearen inguruko emakume

artista eta bitartekariak bizitzen ari

diren garai historikoaren berri

emateko gunea (kontakizunak sartu,

editatu, partekatu)

>BISITA GIDATUAK GENERO

IKUSPUNTUTIK

abenduak 4 eta 12, 18:00

bilboko arte ederretako museoen

inf+ & izen-ematea:

wikihistorias@gmail.com

(haizea barcenilla 645705421/saioa

olmo alonso 656757774)



arraytxiki

ARRAYTXIKI

WEB LABORATEGI BERRIA

http://arraytxiki.com

1. proiektua: http://publikatu.com

>euskaltube.com + bildu.net +

txioka.net + zerberri.com.-en bilgune

>hilabetero : fish&txips bilkurak



publikatu

KONTSUMO GELAK LANTEGIAK

publizitatea, etiketak, erosketak, elikadura, segurtasuna...

(bigarren hezkuntzako 2. zikloko ikastetxeak, helduentzako ikastetxeak eta helduen elkarte eta taldeak)

PRESTAKUNTZA PAKETEAK

kontsumoari buruzkoak, kontsumo-gatazken babesaren ingurukoak, etxeko segurtasuna...

(bigarren hezkuntzako 2. zikloko ikastetxeak, helduentzako ikastetxeak eta helduen elkarte eta taldeak)

IKASTAROAK & HITZALDIAK

(biztanleria guztia oro har)

info+: 945016600/a-

kontsumo.gelak@ej-gv.es

KREA: KOMIKIA & POESIA ESKOLA LEHIAKETAK

(komikiaren XXVI. & poesiaren IV. eskola lehiaketak)

lanak aurkezteko epea: abenduak 15

abarrots marrazkilaria (tmeo), izaera

didaktikoko 'komikiaren oinarritzko gida

bat' sinatuko du. arabian edo caja vital

kutzako jardura eremuan bizi diren 9

eta 17 urte bitarteko ikasleek parte

hartu ahal izango dute

info+ : www.kreared.com

LIBURUTEGI BIZIDUNAK

>MARILURREK 5.722.630 IPUIN

DAKIZKI

ANA MEABE IPUIN-KONTALARIA

4-8 urte

abenduak 3, 18:00 el pilar g.e-an

>EO, HEMEN NAGO

OIHULARI KLOWN ANTZERKITALDEA

3-8 urte

abenduak 4, 18:30 iparralde g.e-an

www.vitoria-gasteiz.org

MONTEHERMOSO. TAILERRAK (umeak & gazteak)

•CMK TALDEA

larunbatero 11:00-12:30

doan, alde zureko izen-ematea

8-13 urte bitartekoentzat

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

TXIKIART

larunbatero 18:00
 doan, alde zurreko izen-ematea
 4-8 urte bitartekoentzat (heldu batek
 lagunduta)
www.motehermoso.net

BERTSOEKIN JOLASTEKO IKASTAROA

1h 3, 4, 5, 6. mailako gaztetxoentzat
 ostiralero, urriaren 24tik aurrera
 judimendi auzo elkarte 19:00
 xagumendi auzo elkarte
 info+: 945281067 (lukas) / 688603870
 (joseba)



MATINÉ. ZINEMA

montehermoso kulturunean
 igandeetan, 11:00, publiko guztientzat
 abenduak 7, 21, 28 / urtarrilak 4
 gonbidapenak / egunean bertan
 edukiera bete arte
www.montehermoso.net / 945161830

FAMILIA OSOARENTZAKO JARDUERAK GIZARTE ETXEETAN 08-09

www.vitoria-gasteiz.org

IKASTOLEN IKASMATERIALAK

euskaraz jolatu, euskaraz bizi
www.ikastola.net

GAUEKOAK UDAZKENEN EGITARRAU

egitarau osoa (pdf):
www.gauekoak.com
 info+: euskera@gauekoak.com
 945204009
www.gauekoak.com

KULTURA ETXEA

AZKEN INPERIOA ERAKUSKETA - PERISCOPIO

abenduak 8 arte
 astelehenetik ostiralera 10:00-14:00
 larunbatak 10:00-13:30
 afako euskara, kultura eta kirol saila
ccultura@alava.net www.alava.net

PERISCOPIO

abenduak 8 arte
www.periscopiovitoria.com

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

PAGOETAKO PARKE NATURALA
 09 ekaina bitartera
 bisita gidatuak euskaraz
 943835389
www.aiapagoeta.com



montehermoso

MONTEHERMOSO KULTURUNEA
 asteazkenero, 19:30 (ez da
 beharrezkoa deitzea) / larunbatetan,
 13:00

taldeak: asteartetik ostiralera, 18:00
 (aurretik erreserba eginez)
 [945161859 /
educacion@montehermoso.net]

bisitaldiaren hasiera: argibide
 zerbitzuan

ERAKUSKETAK

PASAHITZAK 5 (otsailak 1 arte);
 EUROPEAN COMMUNITIES
 (urtarrilak 4 arte); RENDEZ-VOUS
 NOWHERE (urtarrilak 4 arte); ESA
 SUBSTANCIA QUE MANCHA
 (urtarrilak 11 arte); SESTAON BIZIZ
 (periscopio 08. abenduak 7 arte)
 HAU EZ DA BISITA BAT
 igandero 13:00

bisitarietaren protagonismoa hartzen
 duten zenbait dinamika bitartez
 erakusketari buruzko diskurtso
 berriak eraikitzen dira

ANDRA MARI KATEDRALA

945255135
www.catedralvitoria.com

GASTEIZKO ERDI AROKO HARRESIA

erreserbak: andramari katedralaren
 bisitarien zentroan / 945 255 135
 4 bisita eguneko (iraupena:
 ordubete): 11:15, 12:45; 17:15, 18:45
 2 euro pertsonako

IRUÑA-VELEIA

945403044 / 652720947
www.veleia.com

GATZ HARANA. GESALTZA AÑANA

astelehenetik igandera (jaiegunak
 barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:00
 / 17:00 / 18:00
 bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino
 gehiagoko taldeak
 helduak: 3 euro / lagundutako
 haurrak: dohainik / taldeak: euro 1
 945351111
www.vallesalado.net



ARTIUM

ERAKUSKETEN BISITALDI GIDATUAK

asteazken, larunbatero eta igandero
 (11:30, euskaraz)
 banako bisitariarentzat. doan. plaza
 mugatuak

TALDEENTZAKO BISITALDI HITZARTUAK

derrigorrezkoa alde zurreko aurretik
 erreserba egitea (73 euro)

ERAKUSKETAK

heroiak ez gehiago (bilduma VIII)
 hannah collins. historia abian
 urtarrilak 11 arte
 written portrait. patti smith
 abenduak 5-otsailak 22
 gure oroimenak
 (haurrentzako erakusketa)

ARTIUM TXIKIA*

kontakutako didazu ipuin bat?
 abenduak 7
 pattiren argazkiak
 abenduak 14
 barruan ala kanpoan?
 abenduak 21
 asmatutako abesti bat
 abenduak 28
 (3-5 urte, helduek lagunduta, 12:15-
 13:30)

GOIZEAN ARTIUMEN*

ni + zu = gu?
 abenduak 7
 margolanei adi egon nintzen eta...
 abenduak 14
 gizandiek esan digute
 abenduak 21
 goazen hannahrekin bidaia zera
 abenduak 28
 (6-11 urte, helduek lagunduta, 12:00-
 13:30)

FAMILIENTZAKO BISITALDI GIDATUAK*

ametsen eta oroitzapenen artean
 abenduak 6 eta 7
 artea eta musika
 abenduak 13 eta 14
 begiradak
 abenduak 20 eta 21
 ikusi-makusi
 abenduak 27 eta 28
 (5-11 bitartekoentzat, helduek
 lagunduta)

[*]: euskaraz izan daitezkeen
 ekintzak dira, une bakoitzean
 bildutako taldearen arabera

info + erreserbak: 945209010
www.artium.org

ZERAMIKA ERAKUSKETA BISITA GIDATUAK EUSKARAZ IÑAKI JAUREGIALTZO

abenduak 20 arte
 asteartetik larunbatera 19:00-21:00
 juañ lopez de ael-en arte espazioa
 (zapataria kalea 79)
 inf+: 945254409/667595607

ERAKUSKETA: SORGINAK

gasteizko agiritegi historiko-
 probintziallean
 09 urtarrilak 12 arte
 BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ
 945150540
www.alava.net

GEU elkartearen oharra
 euskaldunon lan politan sartu nahi baduzu,
 bidali izen-abizenak eta kontakturako
 telefonoa geuelkarte@grn.es helbidera
 eskerrik asko!

kanGEUroak
 umeak zaintzeko prest bazaude eman zure
 izena zerrenda honetan eta zerbitzu hau
 behar dutenak jarriko dira zurekin zuzenean
 harremanetan. horretarako, bidali
geu@geugasteiz.com helbidera zure izena,
 telefonoa eta ordutegia
 (goizez/arratsaldez/gauetz/egun
 osoz/asteburuak).



Lazarraga

ARABAR POETA
(1547-1605)

JARDUNALDIK 08

Abendua 9-10-11

ARTIUM Areto Nagusia

Lazarraga euskal idazle garrantzitsuenetako eta, era berean, interesgarrienetakoa da. Arrazoi asko dago hori baieztatzeko. Hiru baino ez ditugu aipatuko hemen: batetik, arabar peto-petoa zen, Larrean bizitzen ehun urte baino gehiago zeraman familia bateko kidea; bestetik, noblea zen, Gebaratarren itzalean garatutako leinu batekoa, Lazarraga-tarrak; eta bukatzeko, bere literaturgintza bete-betean koka daiteke Ernazimentuan, hots, goi mailako kultur giroan.

Hiru ezaugarri horiek talka garbia egiten dute orain arte euskal kulturaz izan dugun irudi estereotipatuarekin.

Joan Perez Lazarragako da haren izen osoa, XVI. mendean oraingoz arrunta zen euskal era klasikoan esanda, Juan Perez de Lazarraga, gaztelaniaz. Bi hizkuntzotan idatzi zuen eta Cervantesek Kixotearen lehen partea argitaratu zuen urtean hil zen, Araban.



Hitzaldi guztietan itzulpen zerbitzua egongo da

Antolatzaileak:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net



Abenduak 9 asteartea

LAZARRAGA ETA EUSKARA

- 18.30** Sarrera. Lorena Lopez De Lacalle, Euskara, Kultura eta Kirol Foru Diputatua
- 18.40** Gidor Bilbao
Lazarragaren ediziorako bidea
- 19.20** Koldo Zuazo
Lazarraga eta Arabako euskara
- 20.00** Galde-erantzunak
- 20.15** Gerardo Markuleta, Gidor Bilbao eta Olatz Zugasti
Lazarragaren olerkietan oinarritutako poema irakurketa, harparen laguntzaz

Abenduak 10 asteazkena

LAZARRAGA ETA GIZARTEA

- 18.30** Kike Fernandez De Pinedo eta Jabi Otsoa de Alda
Larreko sorginak eta arabar euskal elebakarrak Lazarragaren garaian
- 19.00** Joseba Intxausti
Elite euskaltzaleak Lazarragaren bezperan: eta Elizakoak zer?
- 19.35** Pruden Gartzia
Zazpi gauza jakin beharrekoak Lazarragari buruz
- 20.10** Galde-erantzunak
- 20.25** Intonatione kuartetoak eskainiko duen... Kontzertu klasikoa, XVI. eta XVII. mendeko musika emanaldia

Abenduak 11 osteguna

LAZARRAGA ETA LITERATURA

- 18.30** Julen Arriolabengoa
Euskal kantu zaharrak eta beste lbarguen-Cachopin kronikan
- 19.15** Iñaki Aldekoa
Ernazimentua Lazarragaren literaturan
- 20.00** Galde-erantzunak
- 20.30** Ortzai antzerki laborategiak aurkeztuta... "Maitasunaren saltsan" (Lazarragaren artzain nobelaren adaptazioa)
- 21.00** Bertso trama. "Zugan ereingo den ene hazia (Lazarraga asmatuz)"
Tramalaria: Josu Goikoetxea.
Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Jon Maia

SORGINAK, AKELARREAK ETA INKISIZIOA

"EUSKAL HERRIA BERE BIZIKO INTERESA DUEN ESKUALDEA DA, EUROPAKO SORGIN EHIZA AZTERTZEAN. EGINDAKO KALKULUEN ARABERA, EUROPAN, 1450 ETIK 1700 ERA BITARTEAN, HOGEI MILA LAGUN INGURU ERRE ZITUZTEN. HALA ERE, SORGINEN AKELARREA INON GUTXITAN DESKRIBATU ZAIGU EUSKAL HERRIAN BEZALA, ETA JENDE MULTZO HANDIEN KONTRAKO JAZARPENAK BESTE INON EZ BEZALAKO NEURRIAK IZAN ZITUEN EUSKAL HERRIAN" (G. HENNIGSEN: EL ABOGADO DE LAS BRUJAS. BRUJERIA VASCA E INQUISICIÓN ESPAÑOLA).

Aipu hau Zumakera kaleko Arabako Artxibo Historiko Probintzialaren egoitzan **'SORGINAK! ZUGARRAMURDI ETA INKISIZIOAREN ARTXIBOAK'** izeneko **ERAKUSKETA** interesgarrian irakur daiteke.

Bertako arduradunek gai honen inguruko jatorrizko agiriak, marrazki, testu, ordenagailu eta bideo bat ikusgai jarri dizkigute.

2009ko urtarrilean, Inkisizioak Logroñon gure lurreko sorginen aurkako prozesurik zabalena abiatu zuela 400 urte beteko dira. Bertan bi mila lagun baino gehiago, gehienak emakumeak, ikertu zituzten. Hasierako peskizak Zugarramurdi eta Urdax inguruan izan baziren ere, hurrengo 5 urteetan beste lurraldeetara zabaldu ziren, baita Arabara ere.



SORGINEN LEKUAK ARABAN

>Sorginekin zerikusia duten lekuak: **Sorginmendi** (Apinaiz, Birgara, Legutio); **Sorgin** (Luzuriaga, Agurain); **Sorginarrate** (Dulantzi); **Sorginatze** (Astobiza); **Sorginetxe** (Arrizala); **Sorginiturri** (Etxabarri-dibina); **Sorginsolo** (Urrunaga); **Sorginzubi** (Aramaio, Estarrona); **Las Brujas** (Lagran, Arespaldiza, Sojoguti); **La chabola de la hechicera** (Bilar); **Monte de las brujas** (Anuzita)...

>Sorginen topaleku edo bizitokiak: **Alto de los Cristinos** (Araia); **Altzondo** (Ondategi-Zaitegi); **Oletar** (Menoio); **Kaudele** (Legutio); **Cueva de la Bruja(s)** (Narbaitza, Karkamu, Langraitz, Zaldondo); **El payo de las brujas** (Guardia); **Lezea, Lezao** (Amilamiaren lezea, Egileor); **Leziaga** (Laudio); **Lazaldai** (Zarate); **La encontrada** (Lukiano); **Larrea** (Apinaiz-Arluzea); **Errotalde** zubia (sorginek egindakoa, Birgara); **Okinako zuloa, Zarakua** (Ondategi); **La Granja** (Boveda)...

>Akelarre lekuak: **Abadelaueta** (Etxaguen); **Anbotondo** (Aramaio); **Ametzola** (Aramaio); **San Cristobal** (Aramaio); **Izpiztekoarriaga** (Gantzaga); **San Vitor** (Gauna); **Bastida, Mariturri** (Arbulu); **Barrera errota** (Kripan); **Mimintxi** (Tresponte); **Urkiza** (Urizaharra)...

>Mariren bizi-lekuak: **San Adrian tunela**; **Gorbeia**; **Marizulo** (Okendo); **Gentilen kobazuloa** (Maria la Ruecaren bizilekua, Ilarduia); **Mariturri** (Trebiñuko Arrieta, Arriano, Lubiano, Arbulu, Urizar, Gasteiz); **Marizulo** (Okendo)...

t. kike fdz de pinedo
a. edorta sanz & kike fdp




Sorginak, aztiak eta euren mitoak

Ugariak dira gure mitologian, eta oraindik orain, ez da zaila sorginen istorioak dakizkiten pertsonak topatzea. Batzuetan, katu edo txakur bihurtuta, bestetan, Mari dugu protagonista hegan Anbototik, edo bideoko Alejandro Quintanak dioskun moduan, Aratz menditik San Roman haitzera zerua zeharkatuz eta su izpiak utziz. Leienda hutsa edo benetan izan dira? Ikerlariak hainbat erantzun eman dituzte: belar-sendagileekin lotu izan dira; krisi garaietan botereak sorgintzan bilatu zuen gaitzen errua eta bide batez gizarte kontrola areagotzea; kristautasun aurreko sinesmenak (Mari), erlijio sinkretismoa; eta beste batzuek nekazarien errebeldia eta emakumeen askatzearen sinboloak ikusi dituzte akelarreetan; eta azkenik, badira sexuen arteko borroka azpimarratu dutenak, emakumeak deabrueriekin nahastuz.

Atal honetan ere Araban sorginkeriak eta gaitzak uxatzeko erabili diren kutunak, Barriako ebanjelioak, ateetako eguzkiloreak edo azkonar eta arrano atzaparrak ikusgai daude.



usketa



Inkiszioa

Inkiszio modernoa Errege Katolikoek sortua da 1478an, Juduen heresiaren kontra aritzeko. Gerora, ordea, sorginkeria, sexu delituak, portaera desagokiak edo ideien zentsurara zabalduko da, harik eta 1834an deuseztatu zen arte. Zertarako sortu zuten? Sorreran erlijio ortodoxia babesteko eta juduen aurka aritzeko sortu omen zuten. Baina pixkanaka erlijio batasunarekin batera, batasun politikoa eta Monarkiaren boterea areagotzeko baliatua izan zen, ekonomia arrazoiak -juduen ondasunen konfiskazioa- ahaztu gabe. Bitxiak dira ikus daitezkeen agiriak, hauetariko batean Gasteizen 1797 urtean zenbait liburu debekatzen dituen agindua ikus daiteke, tartean Platonen 'La República'. Beste batean, Logroñoiko 1610eko autoan auzipetutako Pedro Glz. de Troconizen auzia topa dezakegu. Jatorriz Audikanakoa zen baina Gasteizen bizi zen merkataria. Alta, lanbide honez gain, diru goseak bultzatuta edo, Inkiszio komisarioarena egiten zuen herrietan sorgin salaketak eginez eta barkamenaren truke dirua poltsikoratuz, harik eta Inkiszioak amarrua deskubritu zuen arte.

Zugarramurdiko sorginak eta Inkiszioaren Logroñoiko prozesua (1609-1614)

1609an Zugarramurdin eta Urdaxen sorginen kontrako prozesuari hasiera eman zitzaion. 1610ean Logroñon 30.000 pertsonaren aurrean Fede Auto famatua egingo da bi egunetan. Bertan sei "sorgin" bizirik erreko dituzte eta kartzelan hildako beste bosten irudia ere bai. Baina sorginekin bukatu beharrean, kontrakoa gertatuko da, nonahi agertuko baitira auzi berriak. 1611 urtean Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabako zenbait herritara komisarioak bidaliko dituzte sorgin inculpazioak jasotzera, baina gutxira "edicto de gracia" eman eta auzipetuak damutu edo ukatu egingo dute aurreko deklarazioa. Prozesu honetan paper garrantzitsua jokatu du Alonso de Salazar inkisidoreak. Auzi ugaritan parte hartu eta gero akelarrikerik ez dagoela konbentzitu da, eta egindako sorgin aitortzen presio edo torturapean lortutako asmakizunak baino ez direla. Azkenik, 1620an "ixiltasunaren ediktoa" izeneko argitaratuko dute hainbat akats aitortuz eta sorginen kontrako salaketa publikoak debekatuz.



MARIA DE ULIBARRIREN AUZIA

Aurreneko deklarazioa Kanpezun egina da Martin Perez Carrasco inkisidorearen aurrean. Hasieran, 36 urtekoa, ezkondua, Maeztun jaioa, Ataurin bataiatua eta Korresen bizi dela jakinarazten du. Etxean zegoela Maria de Ondraita joan zaio eta akelarerra joateko konbentzitu ondoren kalabaza batetik ateratako hauts eta ukenduekin bularra, sabela eta bizkarra igurtzi eta airez Korresko Islarra mendira abiatu dira. Han zelai batean su eta jende askoren artean, erdian eserita, gizon itxurako deabrua bi adar eta guzti. Gero berarengana hurbildu eta buztana azpian musu eman dio, guztiek bezala. Ondoren dantza, musika, jana eta ardoa. Akelarre hauek, San Juan, San Pedro eta abuztuko Andra Mari bezperetan egin ohi dituztela gaineratzen du. Ostean han ikusitako konplizeen izenak aitortu ditu banan-banan: 9 Korresekoak, tartean alkatearen emaztea, Antoñanako 3, Buxandako 2, San Romango 1, Rituertako 3. Jarraian, Juan Ibañez, Pedro Fenandez, Juana de San Roman, Maria de Ondraita eta Maria Saenz de Rituerto errege-erreginak direla gaineratu du. Korresko Pedro Mtz. de Antoñana eta Buxandako Franciso Tamborin, berriz, dantzaldiko musika-joleak. Bukaeran deabruak emandako hautsak galsoroetara botatzen zituzten garia gal ez zedin...

Behin Inkisizioak barkamen "ediktoa" emanda, bi hilabete beranduago Gasteizen Alonso de Salazar inkisidorearen aurrean eta bi interpretek lagunduta bigarren aitorpena egin zuen. Honetan, ordea, damua agertu eta salatutako konplize batzuk errugabeak zirela adierazi zuen. Era berean, Mariquita de Atauri bere amak Logroñoko prozesuan jasandako mehatxu, tratu eta presioak zirela medio, guztiz desesperaturik, bere burua Korresko errekarara bota eta bertan ito egin zela salatzen du. Azkenik, bere amak salatutako Elortza, Maeztu, Sabando, Kanpezu eta Atauriko 37 konplizeen izenak gaineratzen ditu. Aitorpena bukatu, barkamena jaso eta penitentzia zehaztuta bukatzen da 26 orrialdeko agiri luze bezain interesgarria.



ARABAKO

AKERRA GOITI,



korres herria

1609an Zugarramurdin eta Urdaxen hasi zen sorginen kontrako ehiza, eta harrigarria da hango auzipetuen kopurua. Hau dela eta, sorginak Nafarroako eskualde horrekin lotzeko joera nagusitu da gurean. Badira, ordea, beste lurraldeetako sorginak, tartean arabarrak, gehienak 1611 urtean auzipetutakoak. Badakigu batzuk, Bastida, Dulantzi, Arenaza edo Arroiabekoak zirela, zoritxarrez euren deklarazioak galduta dauden arren. Baina badago liburuki bat osorik gorde dena: *Las personas rebocantes que a havido en la secta de Brujos desde 29 de mayo de 1611, que se publico el hedito de gracia contados en este volumen letra Fize-nekoa*. Bertan 80 auzipetutako zerrenda eta aitorpenak biltzen dira. Izan ere, E. Breñas eta J. Otsoa de Aldak Madrilgo Artxiboan sorgin horietariko sei arabarrek itzultzaileak behar izan zituztela jakin ahal izan zuten (ikus 'Arabako euskal hotsak' liburua). Aurten Otsoa de Aldak eta biok egindako bigarren bisitan informazioa osatzeko aukera izan

SORGINAK ETA AKELARREAK

AKERRA BEITI!! ILARDUIAKO AKELARREAN

dugu. Gorde diren 80 auzien artean 10 arabarrak direla eta denek *"interpretes de lengua bascongada"* erabili zituztela baieztatu ahal izan dugu. Hauexek izenak: Graçia Gonzalez eta Magdalena Arça (Zekuiano); Maria de Ulibarri, Maria Gonzalez, Ana de Corres (Korres-Maeztu); Magdalena de Atauri (Atauri-Maeztu-Birgara); Agueda de Murua; Ana Garcia (Larrea); Ana Saenz de Ylarduia (Ilarduia) eta Catalina Fdz. De Leçea (Ametzaga-Araia). Azken honek akelarrearen zehaztapenetan ari dela harribitxi hau uzten digu: *"procede en su missa asta alzar una ostia negra y caliz negro y quando lo alzaba esta y todos los demas se yncaban de rodillas y dandose golpes en los pechos decian aquerra goyti aquerra beyti que quiere decir cabron arriba cabron abajo"*. Agiriok zehaztaperen aberatsez josita daude eta interes handikoak direla uste dugu. Mendialdean zein Ekialdeko Lautadan euskararen nagusitasuna erakustez gain, izua eskualde guztian zabalduko zela ematen

“procede en su missa asta alzar una ostia negra y caliz negro y quando lo alzaba esta y todos los demas se yncaban de rodillas y dandose golpes en los pechos decian aquerra goyti aquerra beyti que quiere decir cabron arriba cabron abajo

du. Kasu guztietan bi deklarazio jasotzen dira. Lehenean, sorginak direla aitortu eta nola eta noiz egin ziren zehazten dute. Ohikoa da beste sorgin-maistrarekin harremanetan jartzea eta honek ukendu batekin igurtzita airez akelarrera eramatea. Han dantza egin, jan, edan eta deabruarekin sexu harremanak izan ohi dituzte. Akelarre hauetan parte hartutako konplizeak ere izendatzen dituzte. Bigarren deklarazioak, ordea, Alonso de Salazarrekin eginak dira, *"edicto de gracia"* edo amnistia eman eta gero, eta denek sorginak direna ukatu edo damua agertzen dute. (Ezkerraldean adibide moduan Maria de Ulibarriren auzia)■

gerora, ordea, sorginkeria, sexu delituak, portaera desagokiak edo ideien zentsurara zabalduko da, harik eta 1834an deuseztatu zen arte



maeztu ondoko otaza, akelarre lekua (magdalena de elorza)



eguneko
menua




GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA



**ZURE
AUTOESKOLA!**
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

dalvez




info@dalvez.com

azkarprint
Inprenta / Inprimategia
Landazuri, 7 - 945 23 30 01
GASTEIZ

♦ INPRIMATEGIA ♦

DIBUtec
Papertegi teknikoak
Landazuri, 7 - 945 13 06 07

Erraman
Argazki - Estudioa
Heradio Fournier, 23
(laborategia)
945 13 71 02
Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**
bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak
Aitzogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza GASTEIZ

El Clarete
jatetxea



unai eta patxi fdz. de retana
zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874




KIDE
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

'HARI GORRIAK'

FITO (ARTURO) RODRIGUEZ:

**“SORTZEKO BEHARRA
ETENGABEA DA”**





t. naroa cuesta
a. edorta sanz

Helburua, berriz, 1976tik 2004ra arteko Gasteizko arte eta kulturaren eremua aztertzea. Kultura jardueren ikuspegi orokorra berreskuratzea da hiru ataletan banatutako trilogia honen xedea. Hau da, esperientzia independente emankorrak berreskuratu eta historia ofizialarekin erkatu. Hots, erakundeen kultur politikak Gasteizko panorama artistikoan izan duten eragina berrikusteko biderik egokiena.

Inoiz eten egin ziren hari gorriak berreskuratu eta euren arteko loturak sendotzea da Fito Rodriguezen asmoa. Banakako zein esperientzia kolektiboak biltzen dituen bideo-dokumental sorta da 'Hari Gorriak'; hiru kapituluatan banatuta. Lehenengo biak iragan dira dagoeneko (2008ko martxoan eta urrian) eta hirugarrena abenduaren 9tik 12ra izango da Montehermoso Kulturunean. Emaizarekin pozik agertu da Rodriguez, hala ere, harila borobiltzea falta da oraindik azken kapitulu honetan. Hiru hamarkada hauetan bizitza kultural eta artistikoa astindu duten protagonistak dira proiektu sakon honen oinarria eta funtsa. Bideo-emanaldiak, mahai-inguruak, hitzal-diak... hausnarketarako bideak anitzak dira. Hitzordua, aitzitik, mugatuagoa: abendua-

Egunero ehundu egiten dira milaka historia, milaka proiektu munduan zehar. Gasteizen, 1976. urtean hari bat askatu zen kaleetan barrena. Kolore gorriko haria. Batzuek ez zioten jaramonik egin, beste batzuek aldiz, hariari heldu eta harila osatzeari ekin zioten. Harilko gorria, noski. Urteak joan dira baina, oraindik orain, badira hari gorri horren inguruko hausnarketaren beharra antzematen dutenak. Fito Rodriguez, kasu. Hauxe da 'Hari Gorriak' proiektuaren jatorria.

ren bigarren astea Montehermoso Kulturunean.

Fito Rodriguezek GEUren galderen hariari heldu dio honakoan.

Nola sortu zen 'Hari Gorriak' proiektua?

Egungo egoera kulturalaren inguruko jakin-mina asetzeko beharra da proiektu honen sorreraren zergatia. Sorkuntzaren eremuan eta politika kulturalen egungo egoerara nola heldu garen ezagutu nahia, alegia. Hurbilen dugunari buruzko jakin-minak sortu du 'Hari Gorriak', gaurko testuinguru hurbilean gizarte eta produkzio harremanak nola osatu eta garatu diren ezagutzeko grinak. Paradoxikoki alor ezezagunak izan ohi dira hauek. Hots, "non-dik gatozen eta nora goazen" galderei erantzunak bilatzea. 2004 urtean jaio zen egitasmoa. Beraz, denbora daramagu jada bertakoari hari gorrien prismetik erreparatzen.

Lotura horiek noizbait moztu zirela diozu...

Bai, bi maila desberdinetan gertatzen den mozketak latza da. Horietako bat, eszena independente eta kultura ofizialaren artean gertatzen da; bestea, praktika artistiko

eta kulturalen artean. Lehenengoa, instituzioaren etengabeko konplexutasunaren eta administrazio kulturalaren burokratizazioaren ondorio naturala da. Dena arautzeko behar horrek berezko energiak desaktibatzen ahalmena du. Hala ere, bestelako mozketak leunagoa ere existitzen da: gizarte dibergentzia jaiotako praktika artistiko eta kulturalak konpromiso horretatik aldentzen dira.

Zein koloretakoak beharko lirateke izan egungo gizarte sareak lotzen dituzten hariak?

Ez dakit oso ondo zein koloretakoak diren, baina, hari hauek trinkotasuna galdu dute. Sare trinkoak sortzean datza gaurko erroka, zenbait hari birkonektatuz...

'Hari Gorriak' proiektuaren lehen bi kapituluak iragana dira dagoeneko. Zer-nolako balorazioa egiten duzu?

Zaila da kanpotik neurtzea proiektu batean buru-belarri hainbeste denbora daramazunean. Cristina Arrazolak (bideo sailaren autorea nirekin batera) eta biok artearen mundutik at dagoen jendeak gure egitasmoa ulertuko duen galdetu diogu elkarri. Are gehiago, Gasteizkoa ez den norbaitek ulertuko lukeen. Azkenean, oso ondo funtzionatu du eta harriduraz jaso



fito rodriguez 'fundación rodriguez'en kidea ere bada (rdz-fundazioa.net)

ditugu oso iritzi interesgarriak. Alor desberdinetako jendea, baita gasteiztarrak ez direnak ere, erakarri ditu 'Hari Gorriak'-ek. Balorazio orokorra egin behar banu... iraganeko belaunaldietatik, prozesu sozialetatik, gertatu zaigun orotik... ikasi beharra dugu egungo egoera ulertzeko eta era kontsekuentean lan egiteko.

1976ko martxoaren 3ak Gasteizko historia aldatu zuen. Zer eragin izan zuen gertakari honek artean eta kulturean?

Martxoaren 3a momentu klabea da hiriarrentzat alor guztietan. Lotura sendoak sortu ziren kalean *shock* handi horren eraginez. Elkartasuna nonahi... Hiria eta hiritartasuna ulertzeko oso modu berezia. Estatu espainiarrean izan zen trantsizio garaian erreferentzia data da. Era berean, hirian sortu diren ekimen kolektiboak ulertzeko ezinbestekoa. Akzio eta pentsamendu autonomia hori beste hainbat arlotan

islatu zen. Hartara, autogestioan oinarritutako esperientzia, argitalpen... anitz aurki daitezke.

»»»»»

Zertan bereizten dira esperientzia kultural/artistiko independenteak eta instituzionalak hiru hamarkada hauetan zehar?

Instituzioek aurrera eramandako kulturaren arautzeak administrazio eredu zurrunkarri ditu. Intuzio bidezko prozesu berezkoak geldiarazteko joera hedatuz. Administrazioa eta sorkuntza oso bestelako munduak dira, hala eta guztiz ere, elkarren beharra dute. Harreman berezi hori azaltzen saiatu gara protagonisten testigantzen bidez 'Hari Gorriak' proiektuan barna.





Espazio alternatiborik gelditzen al da Gasteizen?

Ez da galdera erraza... Lehenik eta behin, adostu beharko genituzke espazio alternati-

boen ezaugarriak. Bururatzen zaidan lehen Zuloa liburudenda litzateke. Erakusketez gain beste hainbat gauza anitzi egiten die leku; argitara ematen ditu. Gaztetxea eta Hala Bedi Irratia adibide egokiak lirateke; orobat, fanzine edo deslokalizatutako ekin-tzak ugariak dira. Izan ere, sortzeko beharra etengabea baita. Egun artista asanblada baten eta Foru Aldundiaren artean prozesu interesgarria garatzen ari dira. Erakusketa aretoen kudeaketan arituko den kontseilua sortu dute. Ostean, harremana nola sendotzen den ikusi beharko da, baina oraingoz oso interesgarria dirudi.

'Hari Gorriak' proiektua Udalak gestionatzen duen Montehermoso Kulturunean aurrera eramatea ez al da kontraesana?

Proiektuari hasieratik egin zaion kritika da hau, horregatik, argudioak nahiko argi ditut. Horrelako proiektu batek ezinbesteko



du instituzioaren euskarria. Egoera hau proiektu osoaren funtsaren laburpen ezin hobea da. Hau da, 70. hamarkadatik aurrera kulturak egindako bidean izandako mendekotasun instituzionala. Nolanahi ere, horrelako kontraesanei aurre egitea ezer ez egitea baino ausartagoa da. 'Hari Gorriak' egitasmoaren kasuan kontraesan horren ondorio gisa gure kasa editatutako argitalpena dago; egoera orekatu nahian modu independentean sortu dugu 'Hari gorritxuak'.


“Bizi kalitateaz harro sentitzen da Gasteiz, baina harrotasun hori alor kulturalera islatu beharko litzateke

Arte Ederretako irakaslea zara EHU, ezagutzen al dituzte egungo gazteek atzoko gazteen istorioak?

Unibertsitatean modu zirkuntantzialean nago, hala ere, oso esperientzia interesgarria da. Egia esan, gaurko gazteek ez dakite asko duela urte batzuk gazteak izan zirenen inguruko kontuez. Beharbada nire kasuak honen antza izan dezake. Horregatik aritu naiz arte eta kultura lokalaren historiari buruzko hainbat hutsune argitu nahian. Abiapuntua jakingura izan behar da; orduan eskaini behar zaizkie ikasleei datuak, iradokizunak, baliabideak eta bul-tzada intelektualak.

Zer ekarpen egin diozu proiektu honi? Eta zer da jaso duzuna?

Nire hiriaren sorkuntza eremuaren ikuspegi orokorra jaso dut. Batzuetan global-lokalaren bidetik uler daiteke, eta alderantziz.



Denboran luzatuko al da 'Hari Gorriak'? Jarraikortasuna eman nahi al diozu?

Haria solte eramango dut beti... etengabe gauzak sartzen dituzun karpeta horien antzera.

Zer azpimarratuko zenuke hirugarren kapitulu honetan?

90. hamarkadari egiten dio erreferentzia nagusiki. Garai hau arraro samarra da; esku-hartze instituzionalaren inguruan biraka hasten da dena. Ordura arte kaleko kultura izandakoak kutsu ofizialagoa hartzen du. Halaber, aisiaren eta kulturaren uztarketaren ikuspegi errentagarriaren

HARI GORRIAK 03_ zkia

2008ko abenduaren 9tik 12ra

Abenduaren 9a

Irudi eta Teknologia Berrien Zentrua (CINT) // 1990-1996

-Euskal artisten ikus-entzunezkoen hautaketa // 60'

-CINT en breve // hainbat egile // 30'

-Bideo-sorkuntza bilduma 'CINT' // 43'

18:00-21:00 // BIDEOEN PROGRAMA

Euskal Klip. 4., 5., eta 6. programak // 1990-1993

('Euskal Klip. A través del reloj' zikloa 1994. urteko Gasteizko Bideo Jaialdian aurkeztu zen eta 1983-1994 urteen arteko euskal bideo musikalen garapenaren antologia jasotzen du.

Abenduaren 10a

11:00-14:00 // BIDEOEN PROGRAMA

Euskal Klip. 4., 5., eta 6. programak // 1990-1993

18:00. // BIDEOEN PROGRAMA

Hilos Rojos 2. kapituluaren izandako Jakue Paskual eta Patxi García Ardanazen arteko elkarrizketaren laburpena. // 2008ko urriaren 9a // 60'

lehen izpiak antzeman daitezke. Baina bestalde, ekintza interesgarriak antolatzen hasi ziren garai horretan, hala nola, rock erradikalaz gain bestelako bide musikal berrien azterketa, Gaztetxe eta Hala Bedi Irratiaren sendotzea, Amarica aretoaren sorrera...

Hirugarren kapitulu honetan proiektu osoaren gaineko hausnarketarik izango al da?

Horrelako zer edo zer egin nahiko nuke. Abenduko kapitulu honekin trilogia osatzen da eta proiektuaren ikuspegi orokorra izango dugu orduan. Azkeneko mahai-inguruan proiektu osoaren ondorioak ateratzea aproposa litzateke. Gasteizetik dituen berezitasunak, biltzen diren energiak..., gauza hauei guztiei merezi duten balioa ematea, azken finean. Bizi kalitateaz harro sentitzen da Gasteiz, baina harrotasun hori alor kulturalera islatu beharko litzateke■

ARTEA ETA KULTURA GASTEIZEN ARRETAZ AZTERTZEKO OHARRAK

20:00 // AURKEZPENA

Hilos Rojos 3. kapituluaren aurkezpena // 2008 // Egileak: Cristina Arrázola-Oñate eta Arturo/Fito Rodríguez // 60'

Abenduaren 11

11:00-14:00 // BIDEOEN PROGRAMA

Irudi eta Teknologia Berrien Zentruaren laneko hautapena // 1990-1996

- Euskal artisten ikus-entzunezkoen hautaketa // 60'

- CINT en breve // hainbat egile // 30'

- Bideo-sorkuntza bilduma ,CINT // 43'

18:00 // BIDEOEN PROGRAMA

Euskal Klip. 4. eta 5. programak // 1990-1992

19:00h // HITZALDIA

Miren Jaio / Historiadorea, komisarioa eta arte kritikaria

Coming of age/Passing of time.

"Esperientzia pertsonalean oinarritutako

kontakizuna, irudiek, eta hauek egin edo

ikusitakoa diren denboraren arabera, subjektibotasunak nola osatzen diren hausnartzen duten 80. hamarkada bukaeran eta hamarkada honen hasieran ikusitako bideo eta filmekin."

Abenduaren 12a

11:00-14:00 // BIDEOEN PROGRAMA

Euskal Klip. 4., 5., eta 6. programak // 1990-1993

18:00 // BIDEOEN PROGRAMA

Irudi eta Teknologia Berrien Zentrua (CINT) // 1990-1996

Vitoria histórico // 1991 // CINT // 6'

The Rippers // 1994 // Iñaki Larrimbe eta

Esteban Torres // 3'

Todo va Bien // 1990 // Kike Loyola // xxmin

CINT en breve // hainbat egile // 30'

40 m2 útiles // 1992 // Fito Rodríguez

Bornaetxea // 7'

19:00h // MAHAI-INGURUA

Gonbidatuak: Yolanda López de Heredia;

Kazetaria / Iñaki "Igu" García; The

Allnighters / Nekane Aramburu (comisario

independiente)

Moderatzailea: Natxo Rodríguez; Artista, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko irakaslea

90ko urteak / Kultur munduaren festibalizazioa / Arte publikoa / Musika 90.

hamarkadan / CINT (Irudiaren eta teknologia berrien zentroa / Artisten nomina

berezia / Erakunde arteko tirabirak kultur-

an / 2000ko hausturak / Atzerako begirada,

ondorioaren baten bila...

Abenduaren 9tik 12ra // PROIEKZIOAK ETA NAHIERARAKO BIDEOAK

Bideoen programa guztiak eta gainontzeko ikus-entzunezko lanak ikusgai egongo dira kulturuneko ordutegian.

Ikus-entzunezko lanen zerrenda aretoan egongo da.

montehermoso.net



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33
Gasteiz



Kaki Negu Gorriak taldearekin goeko hamarkadan.



Martxel eraso bizian Can't Explain taldearekin.



Luken jo ta su, Odolaren Mintzoa taldearekin.

ZUENA DA GARAIPENA!

TESTUA ETA ARGAZKIAK: LANDER GARRO

KAKI, MARTXEL ETA LUKEN ARKARAZO. MUSIKAGINTZAN ERREFERENTZIA DEN FAMILIA BATEKO BI BELAUNALDI; KONTZERTUETAKO ZURRUNBILOAN ETA ESTUDIOKO LOGISTIKAN, FIN ARITZEN DIRA BETI. ABENDUKO GAZTEZULO ALDIZKARIAN TOPATUKO DITUZUE. ARKARAZOTARRAK: ZUENA DA GARAIPENA!

2009KO AGENDA DIGITALA, JAITSI ZURE ORDENAGAILURA!

GABONETAKO OPARI POLITA DA HONAKOA: GAZTEZULOREN 2009KO AGENDA DIGITALA. SAR ZAITEZ GAZTEZULO.COM ORRIALDEAN, ETA JAITSI EZAZU AGENDA DIGITALA ZURE ORDENAGAILURA. DI-DA BATEAN ETA ETA DOHAINIK. BA AL DAGO GEHIAGO ESKATZERIK?



gaztezulo 2009
HI ETA HIRI MUNDUAK

abenduak 22 asteartea

as	ar	az	os	ol	is	ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Jai egunak
H Hego Euskal Herria
N Nafarroa

ilbete
ilbehera
ilberri
ilgora


Eguna aukeratu Oharrak idatzi



MUSUKA NAZAZU

Torloju musuak, xurgatzaileak, hortzez hortzekoak, sakonak, estuak, gozoak, pasioz betetakoak, bibotedunak, otso gizon musuak... Musu mota asko dago eta musukatzeak, gauza guztiek bezala (...)

www.gaztezulo.com



PERDITA IN DURANGO!

DURANGOKO PARRANDAK AMAIEZINAK DIRA, ETA ARE GEHIAGO, EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAREN GARAIA. DURANGOK 40.000 BIZTANLE DITU, ETA HORIETAKO ASKO PARRANDERO PROFESIONALAK DIRA. GAUTXORI HORIEK ETA INGURUKO HERRIETAKOAK ELKARTZEN DIRENEAN, METAMORFOSI BITXIA GERTATZEN DA: PERDITA IN DURANGO!

GALDUAK, BAINA EZ BETIRAKO



Gaur egungo telesail arrakastatsuen da Lost. Irla batean galduta-ko lagunak abentura milaka jarraitzaile dituzte mundu osoan eta, oraingoz, izanen dute zerekin gozatu. Kontu egizue: telesaila ez da 2010 urtera arte amaituko, edo hori da behintzat J.J. Abrams zuzendariak ekoiztetxearekin sinatutakoa. Bi urte luze falta dira, baina Abrams jauna hasia da amaiera nolakoa izan daitekeen pentsatzen. Aukeretako bat nahiko harrigarria da: pantaila handian eskainiko litzateke, pelikula formatuan. Apustu berritzailea litzateke, ea sasak jarri behar dituztenek zer dioten...

ZALEEN DICTADURA



Aste hauetakoren batean estreinatu behar zuten Dragon Ball telesaila ezagunaren zinema egokitzen. Baina itxaron beharko dugu, eta ez dakigu noiz arte. Kontua da, telesailaren jarraitzaileek lehen irudiak ikusteko aukera izan zutela, eta oso kritika gogorak izan zituztela. Hor-taz, Fox ekoiztetxeak eszena berriak filmatzeko agindua dio James Wong zuzendariari. Urte bukaera baino lehen trailer berria egin nahi dute jarraitzaileen harrera jakiteko. Ona bada, aurrera. Bestela, auskalo...



★ IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • T. 945 430 073

Euskara, gure lurralde libre bakarria

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631



SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33



Jesus Guridi, 2
Tl. 945 27 88 88 - 28 72 37
El Boulevard Merkatal Zentroa - Tl.
945 068 888
01005 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK



AIZPEOLEA
harategia
arraindegia
frutategia
okindegia

Jose Luis
GARMENDIA
Harategia-urdaitegia

Florida Azoka 2 eta 3 Tl. 945 13 24 48

Andaluzia kalea 13 Tl. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea • 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



• Euskaltegi Homologatua • Musika eskola
• Helduentzat • Dantza
• Ume eta gaztekoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65
Abendaño kalea, 48 - Tl: 945 22 34 33

Euskadik
behar zaitu



Julian de Apraiz kalea, 1 Tl. 945 213 390 - Faxa: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net



Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tl: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



Madalena kalea, 2
Tl: 945 13 27 20



Jantziak
San Antonio, 11 • Tl. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 • Tl. 945 15 53 39



Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ALDE ZAHARREKO TABERNEN ORDUTEGIA

Hilabete luze batetik honantz alde zaharreko tabernen ordutegiaren inguruko burutazioak, kezkak, salaketak... anitzak izan dira. Izan ere, azken aldian udaltzainek kontua serio hartu eta isunak jartzeari ekin diote, tabernariak euren lokalak ordu bat eta erdietan ixtera behartuz.

t./a. ane pedruzo

Auzi hau baina ez da berria. Eusko Jaurlaritzak ezartzen duen legearen arabera, tabernekin goizeko ordu bat eta erdietan itxi behar dute, pub-ek hiruretan eta diskotekek bost eta erdietan. Dena den, duela lau urte alde zaharreko ostalari eta auzokideak akordio batera iritsi ziren eta tabernak ordu bi eta erdietan ixtea erabaki zuten. Halere, oraingoan Udalak ordutegi araudia zorrotz ezartzea erabaki du eta eztabaida kalean dago.

• Zer deritzozu alde zaharreko tabernak goizeko ordu bat eta erdietan ixteari?



Cristina Diaz, 45 urte

Nire ustez tabernak denbora gehiago egon beharko lirake irekita. Ni ere gaztea izan naiz eta ondo ulertzen dut gazteek ondo pasatu nahi izatea, baina etxetik gaueko hamabietan irteten badira eta ordu bat eta erdietan dena ixten badiete, ez dute ezer egiterik! Errespetua egonez gero ez litzateke arazorik suertatu behar...



Biki Hernaez, 41 urte

Oso gaizki deritzot, zer egingo du Gasteizko gazteriak horrelako ordutegiarekin? Kanean ezin dute boteloirik egin, ezin dira tabernetan egon ixten dituztelako... Eta horrez gain, ostalariak ere porrot egin dezakete, etekinak lortu ez eta tabernak ixtera behartu nahi al dituzte? Agian nahiago dute Europako beste hirietan egiten den moduan festak etxeetan egitea, ondoren auzokideekin istiluak izateko... Hobeto daude tabernetan, ez?



David Lizarduy, 35 urte

Gaizki, jendeak ondo pasatzeko eskubidea duelako eta horrez gain ostalariak ere bizi behar direlako! Egia da zarata ekiditeko modu bat bilatu beharko genukeela, baina tabernak ixtea ez da irtenbidea, izan ere, zarata ez da aditzen jendea taberna barruan dagoenean, kalera irteten denean baizik!

idazleen zutabea

SANTXOLSABIO

t. rikardo arregi



Sancho el Sabio Fundazioa Zulueta-errek esklabu trafikari esker eraiki zuten jauregia husten ari da, uzten, Betoñoko komentu ohira joateko, Sor/Krea horretara joateko, oligarkia izandakotik eliza katolikoa izandakora. Vital Kutxa gihartsuak horrela erabaki du. Zer egingo diogu. Nostalgia landu apur bat Sendako orbel bustiari begira, besterik ez.

Santxolsabio (horrela deitzen zaio hirian) erabili dugunok, gutxi batzuek besterik ez, zertarako engaina, pena sentitzen dugu. Mahaiak zabalak ziren, giroa isila, gozoak txoko eta bazter guztiak, fotokopiak garestiak. Lanaz aspertzen nintzenean leihotatik lorategiari begira galtzen nuen denbora, edo irabazten, batek daki. Fantasiarako leku egokia zen niretzat, ez bakarrik hantxe bertan liburu horixketan irakur zitezkeen fantasiengatik, ez bakarrik arkitekturak eta dekorazioak sortzen zituzten fantasiengatik, baina, batez ere, bizi izan ez nituen garai beldurgarri, eta aldi berean erakargarri, urrunekiko oroimen ezinezkoak enegan borborka pizten zirelako nahi gabe.

Leku batzuek, aireportuek adibidez, norbanakoa desegiten dute, beste batzuek, aitzitik, norbanakoago egin. Santxolsabio bakoitza zen nor. Arima hilezkorren transmigrazioan sinesteko prest nengoen Santxolsabio sartu eta ordenagailua pizten nuen bakoitzean. Ez dut uste egoitza berrian, produktu kulturez inguratutik, nire burua lebita beltza jantzita ikusteko aukerarik izango dudarik. Egoitza berrian, kanean bezala, ez dut sinetsiko arima hilezkorrengan, are gutxiago transmigrazioan, aukeraturiko lekua komentuko hilerria izan arren. Fantasmak agertuko zaizkie irakurleei han?

Ez dakit joango naizen egoitza berrira. Agian Vital Kutxa gihartsuak luzatuko du tranbia Betoñora eta Salburuako bere egoitzara joan ahal izateko. Ez dakit ere zertarako erabiliko duten orain Zulueta jauregia eta nola egongo den nire ni aspaldiko hura, lebitaz jantzita, ni gabe. Orbel bustiari begira, ziur aski ■

MIKEL NEVE LETE

24 urte. Ingeniari industrialia dugu Mikel eta egun teknologia aeronautikoan oinarritzen den zentro batean egiten du lan, berak dioen moduan hegazkinak apurtzen. Gasteizen bizi da baina hamalau urte bete zituen arte Zanbranan bizi izan zen. Hain da estua euskal musika-tresnarekin daukan harremana, non hainbat lagunek “Junkerilla” izengoitia jarri dioten.

Txikitan organo elektrikoa jotzen zuen eta Gasteizera etortzean beste instrumentu batekin ausartzea erabaki zuen. Klarinetearekin hasi zen, baina putz egitean zorabiatzen zenez utzi egin zuen. Orduan ezagutu zuen trikitixa eta ordutik Mikel eta soinu txikia ez dira sekula banandu. Oso ohikoa da alde zaharretik edo herrietako jaietan trikitixa jotzen entzun eta ikustea, eta berarekin batera jende andana kantuan eta dantzan.



t. ane pedruzo a. edorta sanz

Ezagut dezagun Mikelek eskain dakigukeen errepertorioa!

Duzun biziorik handiena? Jende berria ezagutzea, sarri egiten dudana gauza bat da eta oso gogoko dut.

Bertuterik? Entzuten dakit. Solas egin eta eztabaidatzen dudanean beti besteek esandakoa entzuten dut.

Akatsik? Bat bakarrik esan behar dut?... Kar-kar! Batzuetan ez ditut gomendio onak kontutan hartzen eta berandu denean konturatzen naiz. Honek pena handia ematen dit.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Betiere erronka berriak proposatzea, monotonian ez erortzeko.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Puntualtasun ezak eta ezjakintasunak. Ideiarik izan gabe dakitenaren planta egiten duten horiek ez zaizkit gustatzen. Erdarazko esaera zaharrak dioen bezala, ezjakintasuna oso lotsagabea da.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk? Noiztik? Hamalau urte nituenetik, euskaltegian ezagutu nuen.

Egunkari bat? El Correo.

Telebista saio bat? El encantador de perros.

Beldurrik? Infinituari. Erantzunik gabeko gauzek izutzen naute. Zer dago unibertsotik at? Noiz hasi eta noiz bukatzen da dena?

Oporrak non eta zertarako?

Egun gutxi batzuk egoteko mendia, baina opor luzeagoak baldin badira atzerria, den-dena ikusteko, nekatzeko.

Nora ez zinateke joango? Salou-ra adibidez, hondartza, beroa eta jendetza ez ditut gogoko.

Eguna ala gaua? Eguna, argia dagoelako eta kalean gauza anitz egin daitezkeelako.

Gasteizko gaua non? Kutxin.

Liburu bat? Kafkaren ‘Metamorfosia’. Hunkitu ninduen, izan ere, idazleak aurketen duen metamorfosia bizitza errealarekin parekatu daiteke. Zoritzarrez zahartzean ezertarako balio ez dutela sentitzen duten pertsona asko daude, eta nire ustez orduan hasten da euren metamorfosia...

Film bat? Ez naiz oso zalea baina ‘La vida secreta de las palabras’ esango dut. Gudaren aurpegi guztiak ezin hobe azaltzen dituen film tristea da.

Edari bat? Patxarana.

Janari bat? Txuletoa.

Kolore bat? Berdea.

Musika talde bat? Kepa Junkera, noski! Kar-kar!

Baina zuk musika talde bateko kidea zara, ezta? Bai, Azido Folkloriko, baina

>Askotan doa herrira, bertan daukan baratza zaintzera.

>Mendia izugarri maite du eta musika ere betidanik atsegin zaio.

oraindik ez dugu nire gustukoena izatera hel-tzeko mailarik, kar-kar!

Zer da trikitixa zuretzat? Nire ahotsa da, baita lagunak egiteko eta nire gogo-alderate adierazteko tresna bat ere.

Kirol bat? Pala.

Zer da Gasteizek duen onena? Eguraldia eta toki guztietara oinez heldu zaitezkeela, dena gertu dagoelako.

Txarrena? Itxiak gabela...

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Mugatuta gaude... Nik egunaren erdia euskaraz eta beste erdia gaztelaraz igarotzen dut. Ahalko balitz, erdi bai batekin erantzungo nioke galdera honi.

Amets bat? Denboraren makina asmatzea. Txikitatik nahi izan dudana gauza bat da, izan ere, nire arbasoak ezagutu nahiko nituzke, baita etorkizunera bidaiatu ere, zer gertatuko den jakiteko.

Amesgaizto bat? Esku bat moztuko balidate, ditudan zaletasun guztietarako bi eskuak behar baitituz.

Iragana, eguna ala etorkizuna? Eguna. Ez zait planak antolatzea gustatzen, gauzak nahi bezala ateratzen ez badira ez zapuzteko. Ni beti egunean bizi naiz.

Zer eskatzen du herriak? Alde batetik, bakea, eta bestetik, kontaktua, harremana. Pertsonak ezin gara bakarrik bizi, bakardadea oso tristea da, tristeena ■

proposamenak

liburua

'mundua lo dagoen bitartean'

patxi zubizarreta • 08-azaroa • txalaparta.com

bizitzan bi motatako hitzak daude: egunekoak eta gauekoak. eguneko hitzek gure pentsamenduarekin dute zerikusia, gure arazoiekin, gure erabakiekin. gaueko hitzak, berriz, geure sentimenduetatik sortzen dira, geure irrika eta desioetatik, eta askoz ere libreagoak dira, benetakoagoak. hala bada, ongi etorri gaueko hitzen hitzordura, ongi etorri mundua lo dagoen bitartean irriti saiora, sentimendu, irrika eta desioen ordura. goizaldeko ordu bata eta zazpi minutu diren honetan, mikrofonoak zabalik dituzu. dei bat aski duzu, deitu 94 613 42 40 telefonora eta kontaguztu nahi duzuna, edo parte hartu gure txatean, mundualo.net helbidean, eta idatziguztu nahi duzuna. erredakzioan, eba ugalde; pianoan, chuck aranbarri; eta, mikrofonoan, ni neu, karlos fisher. bai? badirudi badugula baten bat gaueko hitzak esateko prest. [www.txalaparta.com-en grabazioak, irudiak eta material guztiak entzun eta ikusgai](http://www.txalaparta.com-en-grabazioak-irudiak-eta-material-guztiak-entzun-eta-ikusgai).



cd

'kiribil'

zura • 08-azaroa • gor.com

'kiribil', zura-ren bigarren diskoa, euskaraz egindako bossanova diskoa da: iturri desberdinetatik edaten duen bossanova berritzaileko diskoa. bertan, rocka eta funkaren tradizioa brasildar samba eta bossarekin nahasten dira, mistura ederrean. Oro har, harmoniak eta erritmoak brasildar kutsukoak dira, euskara bihurtzen delarik hitzen hizkuntza nagusi. ikuspuntu berritzaile batetik landutako bossa da beraz, diskoaren muina. diskoaren izenburuak, kiribil, musika egiteko planteamendu berriei so egiten die, loop eta sekuentziekin egindakoari, baina baita espiral gisan musikak zabaltzeko daukan joerari. zura egun, zenbait aldekatzen ondoren, xabi strubellek (kitarra eta ahotsa), nerea olaxak (ahotsa) eta diego garciak (bateria) osatzen dute, zuzenekoetan gorka sesma (kashbad-eko gitarra-jotzailea) eta hans (baxuarekin) gehituko zaizkielarik. laguntzaileen arloan, egungo euskal eszenaren izen garrantzitsuak daude: eñaut elorrieta (ken zazpi), ines (gose), anari eta sorkun. baita wemean suitzar taldeko sabina leone ere. musikarien aldetik, koldo uriarte eta gorka pastor teklatu-joleak eta marc barnes baxu-jolea egon dira diskoan parte hartzen.



dvd + cd

pirrix eta porrotx

08-urria + azaroa • katxiporreta.com

ESKERRIK ASKO! (DVD)

eskerrik asko ikuskizuna mari mototsen ospitaleko egonaldian oinarritzen da: minbizia du, eta sendatzeko botikak ilea erorarazten dio. gai hau ardatz hartuta, gaixotasuna taburik gabe, naturaltasunez, itxaropenez eta alaitasun handiz landu dugu. proiektu honetan guztian, besteak beste, aspanovas elkarte bidaide izan dutela, minbizia duten haurren senideen elkarte, hain zuzen.

PIRATAK (CD)

20 kantu eta 20 ipuintxo biltzen dituen lana. pailazoak arduratu dira abestien hitzak eta istorioak osatzeaz, eta xabier zabala musikariak konposizioak, moldaketak eta programaketa sortu eta landu ditu..

kantariak eta kolaborazioak: pirrix eta porrotx eta mari motots, labrit, olatz korta, aitor gorosabel (su ta gar), jesus cifuentes (celtas cortos), joseba sarriñandia...



literatura dosi txikitan

IKUSGARITASUNA

t. mikel ayerbe



Nahikoa da. Edo nahikoa dut. Jadanik gehiegi idatzi dizuet nitaz eta nik literaturaz aritu nahi nuen. Zutabe autobiografiko hutsak idaztera iritsi ez banaiz ere, askotan gertaera errealean oinarritutako kontuak izan ditudalako hizpide. Batzuetan dezente kamuflatuta eta besteetan ipurdi bistan. Hileroko dosiei esker, gutxienez, berriro ohartu naiz nire bizitza ez dela inolaz ere literarioa. Bere horretan ez duela liburu bat idazteko lain ematen, eta horretaz jabetzea ez da gutxi. Dena den, gure zilborraz aritzearena idazleen kontua omen da, edo idazten dugunona, ez baita berdina idaztea eta idazle izatea. Esku bat dagoe-lako beti (gehienetan bi) idatzitako guztia atzean. Eta nonbait, nabarmendu nahi izatearen joera idazten dugun guztion izaeraren parte da. Bestela, zertarako idatzi? Oron gainetik, axola duena ikusezin ez izatea da.

Durango Azoka ere iritsi da eta ohikoa denez, aurtengoan ere zalaparta sortu da. Ez, ordea, 2008ko euskal literatur uzta oparo horniturik datorrelako. Ez. Oraingoan kartelarengatik izan da, hobeki esan, kartelean agertzen ez den gizon ikusezinen inguruan sortu da eztabaida. Zenbaitzuek kartela kentzeko ere eskatu dute, (sasi)berdintasunaren eta (sasi)errespetuaren izenean zentsura ongi ikusia delakoan. Nire ustez, ezer ez dagoen lekuan norbaitek zerbait ikusi nahi badu, bakoitzak nahi duena ikus dezala. Baina ezinikusi nabarmenena ikusezinen atzean emakume bat ikusteko aukerarik txikiena baztertu dutenek sortu didate.

Baina ixil nadin behingoz, sarritan ixiltasunak ere zeresan asko ematen duelako eta gurean ikusezinaz hainbeste hitz egiten bada, nork daki, agian estrategia aldatu eta ikusezin egitea izango da ikusgarriago bihurtzeko modua. Nik badaezpada, proba egingo dut■

LAUROBA: 'GAUARI GAUAREKIN'

Lauroba musika talde donostiarra 2004 urtean sortu zuten Iker eta Haritz Lauroba anaiek. Iker Hamaika Bide taldeko abeslari eta gitarra zen urte horretan, baina taldearen desegiteak egitasmo berri honetan sartzeko aukera eman zion. Izan ere, bateria jotzen zuen bere anaia Haritzekin bildu eta “proiektua aurrera atera zitekeela” ikusi zutenean buru-belarri ekin zioten lanari. Alain Urkola (gitarra) sartu zen taldean hilabete gutxira eta Borja Fernandez (baxujolea), bera izan delarik Lauroban sartzen azkena, aurtengo otsailean.

2005ean atera zuen Laurobak bere lehenengo lana, 9 kantuz osatutako maketa. Hurrengo urtean, Donostia Pop-Rock Lehiaketa irabazteagatik beste lau abestiko diskoa kaleratu eta azkenean... Etorri da taldearen lehenengo disko luzea! 2008ko irailean aurkeztu dute 'Gauari Gauarekin'. Harrera bikaina izan du diskoak, “bai komunikabide aldetik bai aurkezpen kontzertuen aldetik ere”, azaltzen digu Ikerrek, Lauroba taldeari ahotsa eta gitarra jartzen dizkion taldekideak. Gustura erantzun die Ikerrek GEUren galderi. Ikustagun:

t. ainhoa arriaga

a. edorta sanz



IKER LAUROBA, AHOTSA&GITARRA:

“GERO ETA GEHIAGO ARI DA ZABALTZEN EUSKARAZKO MUSIKAREN ESPARRUA”

Rock, Pop, Punk... bezala definitu dute zuen musika, baina zuek, nola definitzen duzue?

Zaila norberak definitzea, baina nik nahiko gitarreroa dela uste dut, eta aldi berean melodikoa ere. Pop melodiak dituen rock musika bezala agian. Power pop-etik ere badu zerbaite nik uste.

Zer ekarri zion taldeari Donostia Hiria Pop-Rock Lehiaketa irabazteak?

Lehiaketak bi atal zituen, grabazio baten bitartez finalaurrerako sailkatzen zinen, eta gero bi zuzeneko kontzertu eskaini behar ziren, epaimahai baten aurrean, eta hortik irabazle suertatu izanak, bultzada bat ekarri dio taldeari, gauzak ondo egiten ari zaren seinale; hori guri dagokigunez. Kanpora begira taldea

ezagunagoa bilakatzeko lagundu digu, batez ere Gipuzkoa arloan.

Azken hamabost urteetan musika talde euskaldun bakarrak irabazi du lehiaketa, zuok hain zuzen. Zein irakurketa egiten diozue honi?

Alde batetik, erruaren parte bat gurea dela uste dut. Askok kostatu zaigu Euskal Herrian musika gogorra ez den zerbaite egitea, euskaraz diot. Geroztik eta gehiago ari da zabaltzen euskarazko musikaren esparrua eta hori izan daiteke adibide bat.

“lan asko egin behar izan dugu orain gauden puntura iristeko. zorte kontua ere bada hein batean, baina lan ere gogor egin beharra dago, asko entseiatu

Lehiaketaren aroa den honetan, musika talde bati ateak ireki lekizkioke sari bat irabazteak. Baina, bide hori hartu ezear zaila ikusten duzue jautzia?

Guri, lehiaketa irabazteak lagundu zigun, bai, baina ez pentsa ate asko ireki dizkigunik, lan asko egin behar izan dugu orain gauden puntura iristeko. Zorte kontua ere bada hein batean, baino lan ere gogor egin beharra dago, asko entseiatu.

‘Gauari gauarekin’. Zuen lehen disko luzea. Diskoko bi abestiren izenen arteko loturak sortzen du izenburua. Zer da Gaua Laurobarentzat? Nola deskribatuko zenukete zuen lan hau?

Ez zen gure hasierako asmoa gauari buruzko disko bat egitea, ez kontzienteki behintzat, behin diskoaren hitzak bukatuak genituenean, konturatu ginen bazutela beraien arteko lotura moduko bat, askok gaua zutela hizpide, orduan erabaki genuen diskoaren izenburua. Gauari eta Gauarekin abestien izenburua beranduago etorri zen. Gainera, hasierako izenburuak ‘Gaua, gauari, gauarekin’ izan behar zuen, abestiei izenak apropos jarri genizkien horretarako, baina estudioan grabatu genituen 16 abestietatik, bi

kentzea erabaki genuen, eta horietako bat Gaua izan zen.

Bestalde, Laurobarentzat, gaua inspirazio iturri izan dela esan genezake, musika talde bat izateak hori du, kontzertuak gauetz izaten direla, eta batzuetan gau horiek luzatu egiten direla behin kontzertuak amaituta. Horrek ondorio batzuk dakartza, eta guk disko batean islatu ditugu.

Abestien letrei eman nahi izan diezue garrantzia behin baino gehiagotan. Zertaz aritzen dira Laurobaren kantutak?

Maitasuna, sexua, parranda... sex, drugs and rock&roll!!! (kar, kar). Halere ez da gai bakarra diskoan, baditu beste era bateko gaiak, esaterako, beren senideak ikusteko bidaia amaigabeak egin behar dituztenei eskainitako kantu bat (Norton-ek abesten du gurekin kantu horretan), heriotza gertu duen agure batek denborarekiko duen ikuspegia, eta abar.

CDaren atzealdean takoidun zapata bat ageri da, berriro begiratuta emakume baten itzala ikus dezakegu (edo aldrebes), emakumeak zuen lanean duen garrantziaren isla?

Ba, hau Unai Aranari galdetu beharko genioke (kar, kar), berak egin baitzigun azala. Azalari buruzko hasierako ideia bat eman genion, berak diskoa entzun, eta sexua oso presente zegoela irudituta zitzaion. Orduan azal hori proposatu zigun, eta orijinala gelditu da egia esan, gustura gaude emaitzarekin.

Hiru aurkezpen kontzertu Gauari Gauarekin. Nolakoa da Laurobaren zuzenekoak?

Oso ona izan da jendearen harrera, Laurobakook, dugun dena ematen dugu kontzertutan, hori da garrantzitsuena guretzat, zuzeneko harreman hori jendearekin.

Hurrengo kontzertua?

Oraingoz hilaren 26an, Donostian, Antzoki Zaharrean■



DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

43 URTEZ EUSKALDUNON TOPALEKU



“Jai au ez da izan, gure errietan antolatuten direan beste Euskal Jaien antzekoa, folkloreko gauzetan geldituten direlako beti: dantza, bertso, kantu... Beti azaleko gauzak. Azoka onek sakonago jokatu gura izan dau. Folkloreko gauzak ezetsi barik, euskal kultura adierazi, indartu ta zabaldu gura izan dau”.

t. edurne begiristain

Halaxe zioen Anaitasuna aldizkariaren 1965eko azaroko aleak, urte horretan lehen aldiz ospatutako Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokari buruz. 43 urte igaro dira ordutik. Lau hamarkadatan bilakaera handia izan du azokak. Azpiegitura bera eta azokaren proiektzioa izugarri aldatu eta handitu dira. Egun, Euskal Herriko liburu eta disko azokarik handiena da Durangokoa. Urtero, abenduaren hasierako egunetan, Euskal Herri osoko argitaletxeak batzen dituen topagunea da. Baina hori baino gehiago ere bada. Euskaldunon urteroko zita eta topaleku dugu Durangoko Azoka, mota guztietako idazleak, abeslariak, irakurleak, musikazaleak,... biltzen direlako bertan. Finean, euskara eta euskal kulturaren erakustoki erraldoia eta gure kulturaren jai nagusia da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka.

Liburuzale amorratu baten errua izan zen Durangoko Azoka sortzea. Leopoldo Zugaza Halaxe zioen Anaitasuna aldizkariaren 1965eko azaroko aleak, urte horretan lehen aldiz ospatutako Durangoko Euskal Liburu eta

Disko Azokari buruz. 43 urte igaro dira ordutik. Lau hamarkadatan bilakaera handia izan du azokak. Azpiegitura bera eta azokaren proiektzioa izugarri aldatu eta handitu dira. Egun, Euskal Herriko liburu eta disko azokarik handiena da Durangokoa. Urtero, abenduaren hasierako egunetan, Euskal Herri osoko argitaletxeak batzen dituen topagunea da. Baina hori baino gehiago ere bada. Euskaldunon urteroko zita eta topaleku dugu Durangoko Azoka, mota guztietako idazleak, abeslariak, irakurleak, musikazaleak,... biltzen direlako bertan. Finean, euskara eta euskal kulturaren erakustoki erraldoia eta gure kulturaren jai nagusia da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka.

Liburuzale amorratu baten errua izan zen Durangoko Azoka sortzea. Leopoldo Zugaza durangarra Gerediaga-Durango Merindadeko Adiskideen Elkarteko zuzendaritzakidearena, hain justu. Errepublika garaian Gasteizen liburu azoka bat egiten zela bazekien, eta ideia hori Durangora eramatea pentsatu zuen. Bestelako ukitua emanez, hori bai, Antzerako azoka bat martxan jartzea proposatu zien elkarteko kideei, eraberritua, eguneratua eta

euskal kulturari lotua. Halaxe jaio zen Durangoko Azoka. 1965eko azaroaren leian, Domu Santuetako zubian, antolatu zen lehen edizioa. Gerediaga Elkartek sortu berriak antolatu zuen lehen ekitaldietako bat izan zen, xede argi batekin: frankismoaren diktadurapeko urte haietan Euskal Herrian zegoen liburgintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera ematea. Gerra aurreko azokekin alderatuta, gainera, bazuen alde nabarmena Durangokoak: liburuak ez ezik, diskoak ere saltzen zirela. Kataluniako nova canço-ren ildotik, euskal kantagintza berri bat sortzen ari zen Euskal Herrian, eta musika mugimendu hark isla izan zuen Azokan.

kataluniako nova canço-ren ildotik, euskal kantagintza berri bat sortzen ari zen euskal herrian, eta musika mugimendu hark isla izan zuen azokan

Lehen Azoka Francoren diktadurapean burutu zela kontuan hartuta, zaila izan zen hura egiteko baimen guztiak lortzea. Esaterako, Informazio eta Turismo Ministerioari liburu eta disko guztien zerrenda

xehea eraman behar izan zitzaizkion, lege gordailua eta guzti. Eta, halaber, Durangoko Udalera ere baimen eske jo behar izan zuten, besteak beste, bera zelako Andra Mariaren elizpearen jabea ere. Baimen eta traba guztiak gaituta ospatu zen azkenean Durangoko lehenengo Euskal Liburu eta Disko Azoka. Andra Mariko elizpean inguruko baseritarren produktuen merkatua egiten zen larunbat goizetan, eta Azoka egunean ere merkatua egin zen. Merkatua amaituta, bizpahiru ordu-tan egin zen arratsalderako inaugurazio ekitaldirako muntaia guztia. Lehen Azoka hark 19 parte-hartzaile (argitaletxe) izan zituen, eta bere aurrekontua 100.000 pezetakoa izan zen. Eta aipatzeakoa da, halaber, orduan sari berezia eman zitzaiola liburu interesgarri gisa 'Sociologia y Pastoral de una Diócesis: Vitoria' lanari.

errepublika garaian gasteizen liburu azoka bat egiten zela bazekien, eta ideia hori durango-ra eramatea pentsatu zuen. bes-telako ukitua emanez, hori bai

Elizpetik merkatura

Ondorengo urteetan, 1974. urtera arte, Andra Mariko elizpean ere egin zen Azoka, urtez urte. Urtebeteko etenaldia izan zen, ordea. Izan ere, 1967 urtean ez zen Azokarik egin, elizaren konponketa lanak zirela eta. Urte horietan zehar Azokak gero eta jende gehiago erakartzen zuen Durangora, eta hori

2008 **abendua**
5 · 6 · 7 · 8



ez zen garaiko gobernadore zibilaren gustuko. Hasieratik traba handiak jarri zizkien Azoka antolatzeaz arduratzen zen Gerediaga Elkarteko kideei, eta 1974an, arrazoi erlijiosoa aipatuta, Andra Mariko elizpean egitea debekatu eta Merkatu plazan egiteko aukera eskaini zuen.

Lekuz aldatzea hoberako izan zen, Andra Mari elizpeko hotza, haize korrante eta hezetasunaren orde, leku erosagoa, argiagoa eta epelagoa baitzen Merkatua. Bertan egin zituen Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak urterik gehienak, 1996. urtera arte, hain justu. Urte horietan, gainera, Azokaren historian beste aldaketa garrantzitsu bat ere

HASIERAKO EDIZIOETAKO AZOKAREN DATUAK

- I. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren aurrekontua 100.000 pezetakoa izan zen.
- 1966. urteko Azokan lehenengo egunean 680 liburu eta 179 disko saldu ziren.
- 1968. urtean, Euskaltzaindiak Bertsolarien txapelketaren finala Durangon egin zuen.
- 1969. urtean, 22 saltoki ipini ziren eta 870 izeburu eta 138 disko salgai jarri ziren.

izan zen: Domu Santu eguneko jai egunetan egin beharrean, abenduan egitea erabaki zuten 1980. urtetik aitzina. Azokak merkatua utzi eta karpa erraldoi batera igaro zen 1996an, eta zazpi urte geroago, Landako Erakustazokan izan zuen behin betiko kokagune.

Aurten, abenduaren 5etik 8ra, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak bere 43. edizioari ekingo dio. Dagoeneko, Euskal Herrian antolatzen diren kultur ekitaldi garrantzitsuenetakoa bilakatu da Durangoko Azoka. Liburu eta disko azoka baino gehiago da, ordea: euskaldunon urteroko hitzordua edo topaleku baita ■



- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



**eusko
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea




**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

HERACLIO FOURNIER, 140: GASTEIZKO URREZKO BATEKOA

Adituek diotenez karta jokoa eguneroko arazoetatik ihes egiten laguntzen duen terapia bat da. Joko honek mundu osoan ia 2 milioi zale dauzka eta lagun artean ondo pasatzearen sinonimotzat har daiteke. Euskal Herrian ez dira gutxi kartetan aritzea gustuko dutenak, eta ez dugu ahaztu behar hain ezaguna eta entretenigarria den mus jokoa gure arbasoek asmatu zutela. Gainera, Gasteizek badauka ere zer esana karten zabalkundeari dagokionez, izan ere, Heraclio Fournier naibe enpresa hemengoa da eta aurten 140 urte bete ditu.



NOR OTE HERACLIO FOURNIER?

140 urte ez dira debalde pasa, eta Heraclioren ondorengo hurbilenek lau belaunalditako tartea dute euren senidearen jaiotzatik honantz. Ondorengoetariko bat bere birbiloba Ignacio Alfaro Fournier da, gaur egun 69 urte dauzkana. Dioenez, bere birraitonak "aparteko izaera zuen" eta bere esanetan, "Heracliok ekarri zituen lurrin makina eta telefonoa ere Gasteizera".

Halere, Fournier abizena ezaguna izatearen arrazoiak bestelakoak dira eta kartekin estuki erlazionatuak daude. Ezagut dezagun beraz historia...

Heraclio Fournier Parisko maisu inprimatzaileen dinastia bateko ondorengoa dugu. Burgosen jaio zen 1849. urteko martxoaren 2an eta nerabea izanik karta lantegi bat abiarazi zuen bere anaiarekin batera. Arrakasta handia lortu zuten, banatzea erabaki zuten, bakoitzak lantegi bana bideratuz. Horrela iritsi zen Heraclio Gasteizera. Bere hastapenak Plaza Berriko tailer txiki batean kokatzen dira, baina pixkanaka, 19 urterekin martxan jarritako negozio hura hazten hasi zen.

Hazkunde prozesu hartan, Emilio Soubrier arte-irakaslea eta Diaz de Olano margolariari gaur egun ezagutzen dugun karta-sorta espainarraren aitzindaria izango zenaren diseinua egitea eskatu zien. Lan horrek Parisko erakusketa unibertsalean lehen saria irabazi zuen 1889. urtean.

Horrez gain, eta beste hainbat sorkuntzaren artean, urrezko batekoan bere irudia bera agertzen zen karta-sorta bat ere asmatu zuen.

Karta ekoizpena areagotzen zen heinean, lantegia lekualdatzen joan zen, lehenengo San Prudentzio kalera eta ondoren Manuel Iradier eta Foru kaleen arteko eraikin batera. Azken kokapen hau oraindik ere gure artean dirauen eraikina dugu. Eta gure artean ere badagoena Fournierren birbiloba da, eta berak "normaltasunetik at dagoen familia" bateko kidea dela dio. Bere ahaide guztiak "Gasteiz eta bertan zuten negozioaren maitaleak" izan zirela ere aipatzen du.

Heraclio Fournier 1916. urtean hil zen Vichy-n eta semerik izan ezean, bere iloba Felix Alfaro Fournierrek hartu zuen negozioaren ardura.



t. ane pedruzo
a. edorta sanz

Lantegi honi esker Gasteiz hiria izenak mundu osoan zehar bidaiatu du, betiere kartetan inprimaturik. Hain da garrantzitsua kartek Gasteizi egin dioten ekarpena ezen gor-mutuen hizkuntzan Arabako hiriburua kartak banatzearen keinuarekin adierazten den.

✓ 130. urteurrena ospatzeko, entpresak Heraclio Fournierrek sortutako karta sorta baten erreproduzio erraldoia egin zuen. Horrekin Guinness errekorrean sartzea lortu zuten, munduko karta-sortarik handiena egiteagatik.

✓ Pergamino paperean landutako eta urre gainean eskuz diseinatutako kartak daude, baita zetazkoak eta zilarrezkoak ere.

✓ Gaur egun obrak direla eta itxita dagoen Fournierren museoan (Aiztogile kalean) ezagutzen den karta-sortarik zaharrena dago eta XIV. mendeko-tzat jotzen dute. Museo hau munduko karta museorik onenetarikoa da eta bertako erakusgaien %95 Felix Alfaio Fournierrek bildu zuen urteetan zehar.

✓ Mus jokoak eskaintzen dituen gaitasun estrategikoak direla eta, hainbat unibertsitatetan, Bartzelonakoa kasu, musa ikasgai moduan irakasten da.

✓ Kartek eragin handia izan dute gaztelaniazko esaera askotan. Horrela, oso ohikoa da erdaraz "Sota caballo y rey", "Cantar las cuarenta", "Lanzar un órdago", "Barajar varias posibilidades", "Tener un as en la manga" edo "Ser un as" bezalako esamoldeak entzutea ■



BA AL ZENEKIEN?

Iturrieta



bertako sagardoa



OSTEGUNETIK AUERRERA
IREKITA.
Salnontzeko egunak,
enkarguz.



Sagardotegia



ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593



m. iñigo sarasola



zutabea

t. erlantz urtasun antzano.
historialaria

Abenduaren 3a eta “Olentzero” hura



Abendua iritsi, gau luze, egun motz, Paul Simonen “*a winter's day, in a deep and dark December*”, mendiak zuri, gero eta zuriago, Añamendia lekuko, eta gainera aurten ez da horrenbertze nabaritu “klima aldaketa” ditxosoa, nahikoa arrunta izan baita, oraino, hemengo udazkena.

Bada, hondar urteotan, abenduaren 3a ospatu ohi da arabar euskal ikastetxeetan, “jaun done Frantzisko” eguna “Nazioarteko Euskararen Eguna” bilakarazi baitzuten. Data horretan hamaika ekitaldi egiten dute ume, haur zein adolezsentek, jada ezagutu, akademikoki menperatzen duten “nafarron hizkuntza” gehiago erabil dezaten. Zenbaitetan parte hartu dut eta hunkigarria izaten da, giro aparta, ezin baitugu ahortzi ikasleek Gabonetako jaien bezpera moduan hartzen dutela, hots, begi onez.

Ez da arraroa, halaber, horren ospatzearen ondoren makina bat irakaslek Durangoratz jotzea, euskal musika eta literaturaren azokaren dastatzerat.

Ezin ahortzi, era berean, duela hogeitau urte baino gehiago Gasteizko “Olentzero” bati gertatu zitzaiona. Bere izena ez erratea, aukeran, barkaidazu, irakurle mai-tea. Afera da berak ez zuela Olentzerorena egin nahi, nahikoa tipo “anarkoa” omen zen eta “paso” egiten zuen neguko lehen jai horietaz. Haatik, badakizue, poto-lo xamarra, buruhandia, bizarduna, irrifartsua,... Bon, “planta” ematen zuela argi dago.

Azkenean, gurdi ganean jarri eta hor ari zen. Nahikoa lodittoa ez zelakoan, baina, eta Lantzeko Ihauterietako Ziripoten gisa, adiskideek zamaz bete zuten. Ondorioz, eseriarazi eta, laguntzarik gabe, ezin zuen hortik altxatu. Tartean pozik zela ezin ukatu, umeak, muxuak, algarak,...

Amaieran, halere, eta sirenen hotsen artean, ustekabeko “opariak” iritsi ziren. Jendea lasterka hasi zen, korrika, ziztu bizian desagertu... Eta horra hor gure Olentzero, pipa hortzean zuela, ezin altxatu, bakarrik ez uzteko izuhukatzeko. Ezin deskribatu hemen nola utzi ei zuten “opari banatzaileak”...

Izan ere, eta John Lennon zenak zioenez, “*So this is Christmas, and what have you done, another year over, and a new one just begun. And so this is Christmas, I hope you have fun, the near and the dear ones, the old and the young*”. Eguberri on. ■


geusex

geusex@emaize.com

Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:



geusex@emaize.com.

Emaize Sexologia Zentroko profesionalek erantzungo dizute.

**emaize sexologia zentroa
gizon eta emakumeentzako arreta**

bueno monreal 1-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

Aupa, 13 urte ditut eta atzo lagun batek esan zidan masturbatuz gero, zakila luzatu egiten dela. Egia da?

Masturbazioak gozatzeko eta gure gorputza ezagutzeko helburua du eta ez du gure genitalen itxuran eraginik. Zakila masturbatzean zutituko da, baina ondoren berera itzuliko da.

Zakilaren luzera, zabalera, forma... gure genetika menpe dago, gure sudurra, altuera... bezala eta ez da gure jokabideen arabera aldatuko.

Bestetik esan beharra dago zakilaren luzerak, batzuek kontrakoa dioten arren, ez duela gozamenarekin zerikusirik. Edozein mutil gozamena sentitzeko eta beste pertsona bati gozamena sentiarazteko gai da, bere zakila tamaina batekoa zein besteakoa izan, beraz ez sinetsi zure lagunak esandakoa eta masturbatuz gero, ondo sentitzeko egizu, besterik ez.



Kaixo, neska naiz eta 17 urte ditut. Nire titiek ez dute tamaina berdina eta lotsa handia ematen dit beste pertsonen aurrean biluzteak. Zer egin dezaket lotsa kentzeko?

Lehenengo, garrantzitsua da jakitea neska guztiek tamaina ezberdina dugula bi titietan (gorputza ez da simetrikoa), eta nahiz eta gorputz garatua izan, 17 urterekin baliteke garapen

prozesua amaiturik ez egotea.

Egia da batzuek ezberdintasun handiagoa dutela, baina gehienetan gu besterik ez gara konturatzen. Norbait ikusten duzunean, belarriak, eskuak, begiak... berdinak dituen begira geratzen zara edo pertsona osotasunean hartzen duzu kontutan? Gustuko norbaitekin egotean ezberdintasun hauek antzematen al dituzu?

Besteek zu ikustean ere ez dituzte antzemango, beraz lasai. Gero eta garrantzi gutxiago eman, bi titien arteko ezberdintasuna txikiagoa irudituko zaizu eta zure titiak politagoak antzemango dituzu, ondorioz lotsa alboratzea lortuko duzularik.

errezeta

diocesanaz-mendizorrotzako
ostalaritza eskola

ALBAHAKA OLIOAREKIN EGINDAKO TOMATE, GAZTA FRESKO ETA ANTXOA ENTSALADA



Osagaiak:

- 4 tomate gorri
- Gazta freskoa (150 gramo)
- 12 antxoa fresko
- Gazitutako 12 antxoa
- Oliba olio
- Garaiko uraza bouquet-a
- Albahaka freskoa

Elaborazio prozesua:

Lehenik eta behin tomateak zuritu eta labe batean ordubetez (120º-tan) konfitatzen dira. Lehortuta daudenean, oreganoz eta ezkaiez aromatizatutako oliba oliotan ontzi batean gordezten dira.

Ondoren antxoak garbitu eta odol-hustutzen dira (ur oso hotzarekin egitea gomendatzen da) ondoren ozpinetan ordubetez marinatzeko. Hau egindakoan, ongi marruskatu eta gero, oliba oliotan marinatzen dira, baratxuri eta perrexilarekin batera (bokeroi tradizionalak bezala).

Platera aurkezteko molde angeluzuzena behar da; moldearen hondoan aurrez konfitatutako tomate petaloak ipintzen dira, hauen gainean gazta freskoa (1/2 zentimetro), eta hauen gainetik bokeroiak eta antxoak, tartekatuz bata bestearen gainean.

Entsalada txiki batekin platera osatzen da eta amaitzeko albahaka olioarekin gertatzen da ■





TURISMOAREN KALITATEA

“Nahiz eta Kalitatearen “Q” ziurtagiririk ez eduki, establezimendu barnean kalitatea genuen”

Arabako sukaldaritza dugun jatetxerik eredugarrienetakoa da Andere. Hiru hamarkadatan zehar eguneroko menuan, enpresentzakoan eta bestelako ospakizunetan espezializaturiko establezimendua, egun, Turismo Kalitatearen “Q”a eskuratzeko zorian dago. Fabián Tobalinak, bertako zuzendariak, orain arte garatzen ari ziren pausuak pixkanaka gauzatzen ari direla eta langileek diziplina handia lortu dutela diosku. Guztia produktuen, bezeroen eta zerbitzuen mesedetan.

Zeintzuk izan dira turismoaren alorrekin zerikusia duten sistema eta programa zehatzak aukeratzeko arrazoirik erabakigarrienak?

Andere Jatetxearentzat garrantzitsuenak bezeroa bera da, eta honi ahalik eta kalitate handieneko zerbitzua eskaintzea. Hau izan da betidanik gure helburua eta horregatik murgildu ginen ziurtagiria eskuratzeko prozesuan.

Ze onura izan du zure erakundeak Turismo Kalitatearen “Q”a eskuratu zuenetik?

Aspektu guztietan kalitatea kostatzen ahala kostatzen

tendu nahi izatea erronka latza da. Oraingoz ez dugu alde handirik nabaritu, oraindik ez baitugu ziurtagiririk, baina lehenetik ere establezimendu barnean kalitatea genuen. Formazio fasea amaitzen ari gara, baina azkeneko, nire antolakuntza eta lana da, eta esperientziak erakusten dit zer komeni zaidan eta zer ez. Eguneroko bizitzan bada-kizu zer behar duzun, zer ez, eta gauzak nola hobetu.

Sistema aplikatu zenuenetik ze onura izan dituzue barne-antolakuntzan? Eta bezeroaren

gogobetetzeari dagokionez, zertan hobetu da? Nahiz lehenetik ere ongi genituen, sakoneko hobekuntzak egin ditugu. Batez ere banatzaileekin egin dugu lan, orain produktuen sarrera zorrotzagoa egiten dugu.

Turismo Kalitatearen “Q”a eskuratu izanak zure erakunde maila lehiakorrago batean kokatu duela uste duzu?

Baiezkoan nago. Adibidez, bezeroek euren iritzi eta kezak azal ditzaten formulario bat jarri dugu sarreran. Honetaz gain, hobekuntzez ohartzen ari direla nabari dugu, eta oraindik ziurtagiririk ez badugu ere, gogor ari gara lanean bai Andere Jatetxean, bai Munro Pubean.

Uste dut Kalitatearen “Q” ziurtagiria bermea dela bezeroentzat eta horrek eragin zuzena du euren

ongizatean. Lehiakortasunak egunerokotasuna eskatzen du eta geroz eta zailagoa da, ni ona banaiz, hobea baita ondokoa. Hala ere, ez dugu etsi, eta bezeroari behar duen zerbitzu eta kalitaterik onena ematen saiatzen gara.

Zeintzuk uste duzu izan direla “Q”aren prozesua abiatu zenutenetik landu dituzuen atalik aipagarrienak?

Oraindik ziurtagiririk ez badugu ere, enpresako langile orok eta banatzaileek eskuratu dugun diziplina azpimarratuko nuke atal guztietatik: gauzak nola egin behar diren eta lan-eraginkortasuna nola mantendu erakusten dugun diziplina zorrotza. Hau da egoitza inauguratu eta 33 urte igaro direnean ilusio handiena egiten didana.

Zer esango zenioke tu-



Fabián Tobalina
Andere Jatetxeko
Zuzendaria

rismo profesionalaren alorreko edozeini, sistema honekin lan egitera anima dadin? Gomendatuko al zenioke edozein erakunderi “Q”arena bezalako sistema bat?

Bai, ostalaritzako edozeini gomendatuko nioke. Erabat lasaigarria da etxera lana hobeto egin duzun ziurtasunarekin joatea.

Eusko Jaularitzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorrago izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

JARDUNBIDE EGOKIAK: Kalitatearekiko konpromesua eta sensibilizazioa, hautatutako norakoetan turismo arloko profesionalen zuzendutakoa.

TURISMO KALITATEAREN Q-A: Kalitate kudeaketaren sistemaren egiaztapena. Bezeroen iguripenen betekizunen bermea.

EFQM BIKAITASUN EREDUA: Erakundeei kalitatearekiko bikaintasuna aurrean jartzen dien programa.

JARRI TURISMO-KALITATEAREN Q-A ZURE ESTABLEZIMENDUAN !

94 607 75 86

94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net

“Lehiakortasunak egunerokotasuna eskatzen du eta geroz eta zailagoa da, ni ona banaiz, hobea baita ondokoa”

BASQUE TOUR

turismoaren
euskal agentzia
agencia vasca
de turismo

EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

EUSKALIT

Bikaintasunerako Euskal Fundazioa
Fundación Vasca para la Excelencia



**KOSK EGITEAR
ZAUDE.
EGIZU BA.**

**INPLANTERIK
ONENAK
DAUZKAGU.**

PROTESIAK
ORTODONTZIA
HORTZ-ESTETIKA
KIRURGIA ETA INPLANTEAK
ODONTOLOGIA OROKORRA

**Diagnostikoa, aurrekontua
eta erradiografia: DOAN.**

*ORTOPANTOMOGRAFIA HASIERAKO DIAGNOSTIKOAN



**CLINICAS
VITAL DENT**
ONENAK ODONTOLOGIAN

GORBEIA KALEA, 13

945 218 260

VITORIA-GASTEIZ

Lazarra

ARABAR POETA - POETA ALAVÉS
(1547-1605)

JARDUNALDIAK-JORNADAS 08

Abendua - Diciembre
9-10-11

ARTIUM
Areto Nagusia - Auditorium

Antolatzaileak:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

